

LIZARRA-GARAZIKO ALDERDIAK, GOBERNU BATZORDEAN



# ARRASATE

P R E S S

1999ko  
uztailak 9  
458. zenb.

## Txironen itzulera

IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • KIROLAK: ANE L. DE BERGARA TXAPELDUNA  
EUREN IKUSPUNTUTIK: J. ABALDE • KULTURA ELKARRIZKETA: JESUS GARMENDIA



**Pauso lasaia:**

**Aurreikuspen  
Plan Moderatua**



**Pauso sendoa:**

**Aurreikuspen  
Plan Mistoa**



**Pauso bizkorra:**

**Aurreikuspen  
Plan Aldakorra**

**Urratsez urrats...**

*eta, bide batez, OPARIA*

Hormako erlojua, zure  
Aurreikuspen Planean  
300.000 pta.ko  
ekarpena egiteagatik.



Fagor supermix irabiagailua,  
zure Aurreikuspen Planean  
500.000 pta.ko ekarpena  
egiteagatik.

Euskadiko Kutxak zure erretirorako bidean urrats bat egitea proposatzen dizu. Etorkizuna prestatzen duzun bitartean orainaz goza dezazun. Aukeratu hobeto datorkizun Aurreikuspen Plana\* (Moderatua, Mistoa edo Aldakorra), egin zure ekarpena eta eramazu zure oparia.

\* Hiru Aurreikuspen Plan hauek Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko "Euskadiko Pentsioak BGAE" Entitatean sartuta daude. Promozio honek 99-07-31 arte balio du. • Gairen bat agortzena bada, Euskadiko Kutxak ezaugarri antzekoak edo hobekak dituen beste batez ordezkatu ahal izango du.

# Iparraldean ere bada ekimenik

**P**asa den asteburuan Iparraldean izan nintzen. Txatxilipurdi elkartearen gonbita hartu eta "Euskal Herria Zuzenean" festibalera gerturatu ginen. Agian ez duzue ezagutuko... *EH Zuzenean*, Nafarroa Behereko Arrosa herrixkaren haran zoragarri batean urtero egiten den hiru eguneko jaialdia da.

Musika emanaldiak izaten dira egunero, estilo askotarikoak. Adibidez, reggae-tik hardcorera, punk-etik folklorera edo hip-hop-era... Egun bakoitza estilo baten inguruan antolatzen dute. Ostiralean, "Euskal Herri Tropikala" leloarekin, Bad Manners ospetsuak, Skalariak nafarrak ete beste hainbat eska-reggae talde aritu ziren. Larunbata, ordea, rock gaua omen zen eta hantxe Pilt, Haurtzarrak, Habeas Corpus eta



Iker Barandiaran

Fermin Muguruza aritu ziren, besteak beste. Igandean, ordea, adineko jende ugari gerturatu zen, haur eta guzti. Berau izaten da egunik folklorikoena. Orbaitzetako ikastolaren alde, karpa erraldoia betetzen duen bazkari herrikoia egiten da, trikitilari, bertsolari eta abarez alaituta. Arratsean, berriz, Amparanoia, Sargento Garcia eta beste batzuk aritu

ziren. Haurrentzat prestatutako gune berezi batean haietzako joko, lantegi eta animazioa.

Pariseko zirko karpa famatuan (oroitzen dituzu Hitz Egin edo Egin Txotx?) egiten dira egitarauko gauzarik handienak, baina badira beste txoko eta ekimen gehiago. Adibidez, hainbat gairi buruzko erakusketa eta informazio guneak: Euskal kultura, HIESa, Irrati libre, prentsa, Internet, Drogomenpekotasu-

nak, Euskal Herriko historia; breakdance, euskara, dantza, hip-hop ikastaroak...

Bilbon Rockazoka aipatzean Euskal Herriko lehen kontzertu erraldoia zela esaten zutenek jakin beharko lukete aurtengo *EH Zuzenean* laugarrena dela, gero eta arrakastatsua goa, gainera. 1995.ean Baionako Piztu elkarteak eta Irulegiko irratiek antolatzea erabaki zutenetik 700 pertsona lanerako eta 20.000 lagun inguru biltzea lortu dute.

Helburua da iparraldeko mugimendu euskaltzaleek eta abertzaleek finantziarioa eskuratzea, euskal izaera ezagutaraztea eta musika eta jaiaz gain, hainbat arlo jorrazteko topagune bilakatzeko.

Jende anitzek parte hartzen badu ere, hegoaldeko jende gehiagoren falta sentitu dute, ez baitira askotxo gerturatu. Nire aldetik ere, hor doakizue gonbita, musika eskaintzeaz gain, giroa eta lekua ondo daudelako, baita egunak ere. Horretaz gain, zinez oharatuko ginatke Iparraldea zein gutxi ezagutzen dugun. Eta bada ordua, honen saiakera nozbait egiteko, merezi du eta. ■

**"EH Zuzenean sortu zenetik 20.000 lagun baino gehiago inguratu dira jaira"**

*"Hitz egiteko prest gaude, baina aurrebaldintzarik gabe. Ez Lizarrakorik, ez bestelakorik. Hortik aurrera, ikusiko dugu"*

Paco Garcia



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroisabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Administrazioa:** Agurtzane Gainera. (Tel.: 943 71 23 90). **Disenatzailea:** Maddi Trubue-  
**lo.** **Asteburutako berriemaitza:** Monika Belaschi. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Inzar, Udaleko Gazteria Salaria, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Valez de Mendizabal. **Banako arduraduna:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankoeko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubue-  
lo.



Arrasateko Udaleraren laguntza.



Gipuzkoako Foru Aldundiararen laguntza.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza.

# 334

**automobil saldu dira aurtengo lehen lau hilabeteotan Arrasaten**

Beribil asko saltzen ari dira 1999an. Azken urteotan bezala, gehien saldu den marka Renault izan da: 72 beribil saldu ditu. Bigarren, Ford: 52. Eta hirugarren Opel: 50. Arrasaten Renault da nagusi; Bergegar Opel eta Oñatin, Ford.

ITURRI ONETIK

## Gobernu Batzordea

Jose Mari Loitik eskatu omen du berak esku artean dituen proiektuak errespetatzea. Amaia Larrañagak programa adostea. Joseba Ugaldek ere programa adostuz gero sartuko lirakeela esan du, antza. Xabier Zubizarreta entzuten dabil eta Lizarra-Garaziko ituna sinatu zuten alderdiak Gobernu Batzordean sartzeko ahaleginetan.

Kontua da denak ere nahiko baikor dabilzala eta oso litekeela dela EHk, EAK, EAJK eta EBk Gobernu Batzordean parte hartzea. PPK seguru ez duela esku hartuko, Antonio Palaciosen larunbatean bertan esan zuen bezala. PSE-EE, aldiz, gaur egun hurbilago dago oposiziotik udal gobernutik baino.

Gauzak orain arte bezala badoaz, baliteke datorren astebururako Gobernu Batzordea erabakita egotea.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### Ostirala, 9

- Gauez eta egunez: Amezuza, Santa Marina

### Larunbata, 10

- Gauez eta egunez: Zabala, Zarugalde

### Igandea, 11

- Gauez eta egunez: Ruiz, Maala

### Astlehena, 12

- Gauez eta egunez: Morales, San Andres

### Asteazkena, 13

- Gauez eta egunez: Azkoaga, Ferrerías

### Osteguna, 14

- Gauez eta egunez: Azkoaga, Ferrerías

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Erretxetxeak

- Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
- Igualatorria ..... 943 79 05 00
- Santa Agedako Ospitalea (gizonak) ..... 943 79 39 00
- (emakumeak) ..... 943 79 44 11
- Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

### Gurutze Gorria

- Bergara ..... 943 76 55 76

### DYA

- Antzuola ..... 943 78 71 57

### Anbulatorioak

- Arrasate (Larnaldiak) ... 943 03 53 00
- Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak ..... 943 03 53 11
- Ikuskatzailea ..... 943 03 53 52
- Kanpoko kontsultak: ..... 943 03 53 11
- Fax zenbakia: ..... 943 03 05 14
- Aretxabaleta ..... 943 79 74 58
- Aramaiio ..... 945 45 51 16

### Anbulantziak

- Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

### Udaltzaingoa

- Oñati ..... 943 78 04 11
- Bergara ..... 943 77 91 06
- Arrasate ..... 943 79 14 39
- Aretxabaleta ..... 943 79 10 52
- Eskoriatza ..... 943 71 44 07

### Ertzaintza

- Arrasate ..... 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

- Udal taldea ..... 943 79 09 00
- Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
- Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

### Matxurak

- Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
- Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
- Gasa ..... 900 40 05 23
- ..... 943 79 78 44
- ..... 943 79 76 78

### Garraioak

- Taxiak ..... 943 79 12 22
- PESA ..... 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentruak

- Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11
- Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburutegia

- Monterron ..... 943 77 01 05

### Irratia

- Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## KANPALDIA LHT-REN AURKA

Lasertetasun Handiko Trenaren (LHT) aurkako datoren akanpandan parte hartzeraz deitzen dugu, uztailearen 16tik 25era, aurten Nafarroan, Uharte-Arakil herrian.

Kanpaldian hainbat gai jorrazteko hitzaldiak eta eztabaidak, lantegiak, batzarrak, mendi ibilaldiak, kontzertuak, antzerkiak eta bestelako ekintzak egingo dira, ea horrekin lortzen dugun lurra eta gizateria bere azpian harrapatu duen egungo ekonomia eta gizarte ereduak eragindako sarraskien aurkako erantzunari topagune partehartzaile bat ematea.

Jakin badakigu egun ez dela erraza kontrakorrontean aritzea, ahalegin handiak egin behar baitira indarrean dagoen gizarte, kontsumo eta produktio era guztiz lehiakor eta desarrollistari buelta emateko, autobia gehiago, auto gehiago, urtegi gehiago, energia zarrastelkeria handiagoa, zentral termiko eta eoliko gehiago, harrobi gehiago, Lasteretasun Handiko Trenak... agintzen zaizkigun garaiotan.

Azken urte honetan LHTaren inguruan Euskal Herrian izan den auzia dela eta, arretajari duen edonorentzat agerian dago erakunde publikoek eta aginte ekonomikoek estrategia izugarri distorsionatua eta manipulatu egokitu dutela. Dagoeneko, deus argirik ez eta dena oso ilun dagoela dirudi. Alabaina, larriena zera da, arrazoigabe-

keria eta inposaketa betiketuzen ari direla.

Batetik, Eusko Jaurlaritzak azken urte honetan egitasmoaren birplanteaketa zeharo anbiguo baten inguruan ilunkeriak eta indefinizioz beterik jardun ondoren. LHTk eragindako alarma soziala lausotu eta gutxitu asmoz noski, datorren uda honetan EAeko LHTren behin betiko proiektua erabakitzeko asmoa agertu du, merkataritza ganberak engranajea sartuta aurrera egiteko. Bestaldek, ezin dugu ahaztu LHTren itzala Nafarroan ere luzatzen dela, Nafarroako Gobemuak zalantzarik gabe isileko beste tirabira bat baitarama LHT dela eta ez dela, Madril-Zaragoza arteko LHTren eraikuntzak Iruñeraino "Nafarroako Korridorea" eta Europarekiko lotunea luzatzea ahalbidetuko diolakoan. Hortaz, gobernu batek zein besteak gaur egun LHTren kontsignari lehenetsuna ematen diotela salatzen dugu, horrek ekarriko lituzkeen kalte ekologiko eta sozialen tamaina oso larri buruzko arrazoiak aintzat hartu gabe.

Beraz, kanpaldian parte hartzeraz animatu eta deialdi honen berri zuen inguruan zabaltzea eskatzen dizuegu. Kanpaldirako materiala eskuratu (hormirudiak, panfletoak, pegatinak) edo informazio gehiago nahi baduzue, jar zaitetzte gurekin harremanetan.

AHTaren Aurkako  
Asanblada

## ESKERRIK ASKO!

Ohar honen bitartez Arrasate Errugbi Taldeak bere poztasuna agertu nahi du eta bide batez, orain dela denbora gutxi burutu ziren "Zazpinako Lehen Nazioarteko Errugbi Topaketan" eta "Garagardoaren Jaian" parte hartuz zein antolatzen lagunduz, ekintza desberdinak bermatu zituzten guztiei, eskerrik beroenak eman nahi dizkie tatertxo honetan, udalari, Kajoi tabernari eta Arrasate Kirolak-i aipamen berezia egingo da.

Arrasateko  
Errugbi Taldeko  
Zuzendaritza Batzordea

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25


# Alkoholemia kontrol gehiago ikusten duzu neurria jaitsi dutenetik?

Agintariek diote auto istripuak % 40 jaitsi direla neurri berriak ezarri zirenetik.



**Miren Jauregi**  
(54 urte)  
Etxekoandrea

Nik ez dut ikusi, baina gehiago daudela entzun izan dut. Dena dela, kontuz ibiltzen gara, badaezpada.



**Angel Guridi**  
(38 urte)  
Langilea

Ez dut uste. Gehiago egon beharko liratekeela uste dut. Azken urtean lau aldiz gelditu naute.



**Nerea Zubiete**  
(35 urte)  
Langabea

Ez dut uste; gainera ez zait parean tokatu aspaldian.



**Carmen Bayon**  
(61 urte)  
Etxekoandrea

Ez dakit, baina ez dut uste gehiago jarri dutenik. Niri behintzat ez zait tokatu.



**Victoriano Manjon**  
(45 urte)  
Langilea

Nire ustez bai, baina ez naute gelditu aspaldian.



**Agustin Davila**  
(41 urte)  
Langilea

Ez. Gainera nik ez dut horrelako arazorik, ez dut edaten eta.



**Nati Hernandez**  
(38 urte)  
Langilea

Ez, baina ez naiz askotan ateratzen. Beraz, ez naiz ego-kiena galderari erantzuteko.



**Andoni Lopez Bengoa**  
(29 urte)  
Langilea

Ez, gutxiago ikusi ditut. Azken hilabeteotan birritan ikusi ditudala uste dut.

## IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE

## TOTEM

- Zapatak
- Tatuaiek
- Arropak
- Body piercinga

☎ 943 79 49 72 / 943 79 44 88  
Zarugalde, 14 • ARRASATE



## Arrasate

### LANAK

#### OTALORAN

Pilotalekua egiteko lanak.

#### KONTZEZIÑON

Zerkaostetatik Garibaira bitartean saneamendu lanak.

#### AGERRE PLAZAN


Oraindik ez dira lanak amaitu.

#### A-20 ETA ZALDISPEN

Oinezkoen pasabidea egiten hasi dira.

#### OBENERREKAN

Oinezkoen pasabidea hasiko dute.




**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena




**OSTIRALA 9**

Goizaldean behelainoa agertuko den arren, eguna oskarbi izango dugu. Tenperaturak gora egingo du.



**LARUNBATA 10**

Tenperaturak behera egingo du, baina eguzkia nagusituko da egun osoan zehar.



**IGANDEA 11**

Haizeak Iparraldetik ahul joko du eta ostarteak izango dira nagusi.

## Ilargia



**Ilberria**

Asteartean, uztaileen 13an, ilberri izango dugu.

## Mezak

### Parrokia

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean:**  
09:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean:**  
09:00 (euskaraz)  
10:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (erdaraz)  
19:00 (elebiduna)

### Uribarri

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean:**  
11:30 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

### San Andres

**Ostiralean**  
18:30 (Otoitz ordua)

**Larunbatean**  
18:30 (Bezpera abestiak)  
19:00 (elebiduna)

### Igandean

10:00 (erdaraz)  
11:00 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)


### Santa Teresa

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean**  
10:30 (erdaraz)  
11:30 eta San Isidron (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

## Urkuluko uraren maila

**%88,9**



## Urteurrena

Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- 32 urteko espetxe zigorra ezarri zien Auzitegi Nazionalak Ortega Lara bahitu zutenei.
- Alderdi Sozialistak Eusko Jaurlaritzako gobernu lagatzea erabaki zuten, baina Arrasateko sozialistek udaletxean segitzea erabaki zuten.
- Maite Albes Euskal Herriko gimnasia erritmikoan txapelduna izan zen.


Big

Errebelde baten egunkaria

Charlie  
& Louise

Jack  
Amazonask  
Errege

Rudy Txerria



# ZINEA IZARPEAN

Zure herrian.

mparantzan, frontoian, zelai batean...

Zinea euskaraz ikusteko eta  
gozatzeko aukera paregabea.

Deitu. Eta galde debalde.

e u s k a l d u n o n  
**Egunkaria**

943 300 222

# 9 ostirala

■ ZINEA

*Iluminata*, Alai zineman, arratsaldeko 22:00etan.

■ ARRASATE-KEMPER

“Bretainiako historia eta gaur egungo egoera” hitzaldia eskainiko du Robert Omnés historialariak 19:00etan, Monterronen.

■ DOVER BERGARAN

*Dover* taldeak bere azken lana aurkeztuko du Bergarako Jam aretoan. Kontzertua 21:00etan hasiko da, *Blüe Birne* taldearekin. *Dover* taldeak 22:30ean ekingo dio. Sarrera 2.000 pta kostako da.

# 10 larunbata

■ ZINEA

*La sombra del faraon*, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ MENDI IBILERA  
AUTOBIDEAREN AURKA

Deba Bailarako Autobidearen Aurkako Taldeak mendi ibilera antolatu du Eibar-Gasteiz autobideko lanak salatzen. Irteera Bergarako pilotalekutik aterako da goizeko 10:00etan. 11:00etan protesta ekintza egingo da.

■ SAN KRISTOBAL

Arrasateko kamioizaleek meza izango dute eguerdian San Viatorren. Ondoren, kamioien bedeinkapena egingo da, Musakolan.

■ ARRASATE-KEMPER

Kemperreko dantzariak kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar 12:30ean. Gaueko 22:30ean, berriz, Bretainiako eta Euskal Herriko dantza eta musika jaialdia egingo da Monterronen.

■ SAN KRISTOBAL  
JAIK ARAMAION

•12:00 meza San Kristobal ermitan.

•13:00 dantzak Aramaiko “Lagun Artean” taldearekin. Ondoren Vermouth dantza Ostantza taldearekin.

•17:30 erromeria Ostantza taldearekin.

•17:30 bolo txapelketa. Ohitura den bezala, otartekoak eta salda izango dira.

■ KONTZERTUA  
GAZTETXEAN

*La Corchea Roja* eta *Agitation* Madrilgo punk taldeek kontzertua eskainiko dute Gaztetxean, gaueko 22:00etatik aurrera.

# 12 astelehena

■ ZINEA

*La sombra del faraon*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

# 11 igandea

■ ZINEA

*La sombra del faraon*, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ BIZIKLETA IRTEERA

Ekologistak Martxan taldeak eta Eguzkik Deba ibaia bizirik bizikleta irteera antolatu dute. Goizeko 10:00etan elkartuko dira, Portaloian.

# 13 asteartea

■ ZINEA

*La sombra del faraon*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

**“PAL”**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE



**UNZUETA**  
J A T E T X E A

Karta  
Menu bereziak  
Eguneko menua  
Plater konbinatuak

Zabola auzoa. ARAMAIO.  
Tel.: 945 44 50 95

**HIES**  
**EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiralean  
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99



# 14 asteazkena

# 15 osteguna

## ■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

*La Friction* eta *Schlitz* Parisko punk-rock taldeek kontzertua eskainiko dute Gaztetxean 19:00etatik aurrera.

## ■ ZINEA

*American history X*, Alai zineman 21:30ean.

## ■ ZINEA MONTERRONEN

*Muertos de risa*, filma eskainiko da Monterronen, Aire Zabaleko zine zikloaren barruan, 22:30ean. Sarrera 450 pta kostako da.

## ■ MENDI IRTEERA

Besaideren Gazte Ekin-tzak irteera antolatu du Pirinioetara, uztailaren 15etik 19ra bitartean. Interesatuak uztailaren 12an eta 13an eman dezakete izena, 19:30etik 20:30era.

## ■ SAUNA ITXITA

Musakolako sauna itxi egin dute eta bi astez egongo da erabili ezinik, egiten ari diren lanak direla eta.

## ■ JOKIN ZAITEGI

XIII. itzulpen laburren sariketa abiarazi du dagoeneko AEDk. Edozein pertsonak har dezake parte eta lehiaketara munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Lanak 15-30 orri bitartekoak izan beharko dira eta jatorrizko testuak 1996-1999 bitartekoak izan beharko dira. Lanak urriaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dira AEDn. Irabazleak 200.000 pta lortu ahal izango ditu. Bigarren sarituak, berriz, 100.000 pta.

## ■ ORDUTEGI BERRIA SEXUALITATE BULEGOAN

Sexualitate informazio eta orientazio bulegoak ordutegia aldatu du, udako ordutegira moldatu asmoz. Uztailaren astelehen eta ostegunetan izango da zabalik, goizeko 11:00etatik 13:00etara.

Sexualitate informazio eta orientaziorako bulegoa Garibai etxean dago.

## ■ 69KO SOLDADUGAIK

1948an jaiotakoek urteroko bilkura egingo dute uztailaren 17an. 12:00etan meza izango dute San Joan parrokiaren eta argazki ofiziala Monterronen aterako dute. 14:30ean bazkaria izango dute Mondragon hotelean. Interesatuak aurrez 5.000 pta sartu beharko dituzte Kutxako 2101 0097 49 0122338817 zenbakian edo Euskadiko Kutxako 3035 0055 16 0551032820 zenbakian.

## ■ ARGAZKI LEHIAKETA

"Gazteak eta 2000. urtea" X argazki lehiaketa abiarazi du Gazteria eta Emakume Sailak, ASA taldearekin batera. Izenak aurkezteko epea urriaren 8an amaituko da. Sariak 75.000 eta 50.000 pta.koak izango dira. Berri gehiago Udaleko Gazte Zerbitzuan edo 943 77 00 65 zenbakian.

## ■ KANPALDIA DEGURIXAN

Degurixan elbarrituentzako kanpaldia egiten da urtero. Oraindik garaiz zabiltzate izena emateko. 3.000 pta kostako da. Irteera uztailaren 23tik 25era izango da.

## ■ KOMIKI LEHIAKETA

Arrasateko Komiki Ez Sexisten II Lehiaketa abian da. Lanak uztailaren 13a baino lehen aurkeztu beharko dira, zuri-beltzean edo koloretan, euskaraz zein gaztelaniaz.

### HARRIGARRIA!

Hau bezalako preziorik  
**ez duzu ikusiko**  
beste inon



## MALLORCA

Gran Hotel Mallorca\*\*\*  
Pentsio osoa  
Irteera uztailaren 19an  
Prezioa pertsona bakoitzeko

# 59.675



**VIAJES EROSKI**  
BIDAIK

► Prezio Onak baino gehiago

LARUNBATETAN, 22:00AK ARTE EROSKI HIPERMERKATUETAKO BULEGOETAN

EROSKI BIDAIK  
EROSKI BIDAIK  
EROSKI BIDAIK  
EROSKI BIDAIK  
EROSKI BIDAIK  
EROSKI BIDAIK  
EROSKI BIDAIK  
EROSKI BIDAIK

EROSKI BIDAIK  
EROSKI BIDAIK  
EROSKI BIDAIK  
EROSKI BIDAIK  
EROSKI BIDAIK  
EROSKI BIDAIK  
EROSKI BIDAIK  
EROSKI BIDAIK

**USTEAK USTE**

*Agustin Ugarteri  
gutun irekia*

**K**aixo, Agustin, barkatuko didazu kausardia, baina zutabe hau erabiliko dut zurekin hitz egiteko.

Lehenengo eta behin aitortu nahi dizut izugarri estimatzen dudala zure alderdiak bakearen alde egin duen apustu sendoa, nahiz eta horren ondorioz sekulako erasoak jasan behar izan dituen.

Arrasaten, berriz, gogoeta egiteko garaia iritsi zaizuela iruditzen zait. Ardanza alkate zenean, EAJK 11 zinegotzi zituen. Ekainaren 13an, berriz, EAJ-EAK 6 atera zituen. Hauteskunde hauetan zuk zuzentzen duzun alderdiak bi gune galdu ditu: alkatetza eta EArekiko nagusitasuna; orain alderdi biek hiruna zinegotzi dituzue.

Garaia iritsi zaizu batzokiko atea ireki, hausnarketa sakona egin eta zure alderdia eraberritzeko. Zeuk zuzendu beharko zenuke prozesu hori edo beste batzuei utzi zuzentzen. Osterantzean etorkizuneko trenan behin betiko galtzeko arriskua duzue.

Gaizki esanak barkatu, Agustin, eta ongi esanak kontuan hartu.

Besarkada bat.

Joxe Aranzabal



## Deba ibaia bizirik

\* **Jabier Abalde**

**E**maitza orokorrak ikusita, inolako zalantzarik gabe esan daiteke Deba arroaren egoera probintziako txarrena dela. Horren arrazoia da kutsadura bi lekutatik datorrela, hau da, hiri-isurketa oso handiak egiteaz gain, arro honetan industria oso poluitzailea dagoela, produktu toxiko ugari botatzen dituen (metalak, zianuroak, eta abar).

Arroaren burualdean egoera ona da eta urak oso aberatsak gatzetan. Baina, Eskoriatzatik aurrera indize biotiko guztiak txikitu egiten dira nabarmen eta horrela jarrizten dute ibaiaren ia luzera osoan.

Deba arroaren arazoak dira, beraz, arro osoan zehar industrigune handiak egotea eta, nola ez, adiministrazioaren arduragabeke-ria.

Horrela bada, esan dezakegu, hiri hondakinak inolako tratamendurik gabe isurtzen dituen populazio dentsitate handia egoteaz gain, izugarri kutsatzaile den industria dugula.

Isurkin mistoek (organikoak eta toxikoak) askoz ere eragin okerragoak dituzte isurkin organiko hutsek baino.

Araztu gabeko hiri eta industria isurkinek kutsadura misto handia sortzen dute eta horrek arrain fauna osoa suntsitzen du ibaiaren ibilbide osoan.

Deba arroari buruzko perspektibak probintziako txarrenak dira.

Konpondu beharreko arazo teknikoak dira larrienak; izan ere, hiri presioa ez ezik, kutsadura toxikoa sortzen duen industria ere badugu. Saneamendu planak betetzen ez diren bitartean, ezin dugu

espero arroaren kalitate orokorra zirkunstantziek hobetzeak, esate baterako, euria egiteak.

Hartu beharreko neurriak dagokienez, berreskurapena osoa izan dadin, ezinbestekoa da isurketa toxikorik ez egitea eta hiri isurkinak tratatzea. Hala eta guztiz ere, lan hori baino zailagoa da, gai toxikoetan aberastu diren sedimentuak daudelako.

Badago ibai eta erreka multzo bat, duen egoera onagatik ahalik eta ondoen zaintzen eta gordetzen ahalegindu behar duguna, uraren kalitateari ez ezik, beste alderdi batzuei ere erreparatuta (emaria, ibaiertzak, ubidea eta abar), etorkizunean balio dezan gaur egun hondatuta dauden atalak berriro kolonizatzeke.


Europako araudiak agintzen duenez, 2000. urteko abenduaren 31 baino lehen hamabost mila biztanletik gorako hiri multzoek beren ur hondakin guztiak araztu beharko dituzte.

Berriro ere ez gara horrelakorik lortzera iritsiko, nahiz eta gero diru publikoa beste gauza batzuetan alferrik galdu. Esate baterako, beharrezko ez den autobide batean.

Uztailaren 11n, igandea, denok Debara bizikletaz, erreka garbia eskatzeko. Irteera goizeko 10:00etan izango da, Arrasatetik.

\*Ekologistak Martxan (EKI)-Eguzki

“  
Deba arroari  
buruzko perspektibak  
probintziako  
txarrenak dira  
”



**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**Lore**  
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 50

astea bi hitzetan

■ **Taxien prezioak, berdin**  
Maiatzaren bukaeratik aurrera, Agitax, Gipuzkoako taxisten elkarteak erabakita, Gipuzkoan taxia erabiltzea garestiagoa da.

Bandera jaisteak 8 pezeta gehiago balio du eta herri barruan egiten den kilometro bakoitzak, 2 pezeta gehiago lanegunetan eta 4 pezeta gehiago jaiegunetan.

Hala ere, Arrasateko taxistek ez dute igoera hau ezarri eta ez dute ezarriko, oraingoz behintzat. Izan ere, eurei lan eta gastu handia eskatzen die igoera ezartzeak eta bestetan egin duten bezala, oraingoa ere ez dute igoerarik ezarriko.

Honela, Arrasaten taxi bat erabiltzean bandera jais-tearren 325 pezeta ordaintzen da. Ostera, herri barruan egiten den kilometro bakoitzak 110 pezeta balio du eta herri-

tik kanpo egiten den kilometro bakoitzak, berriz, 61 pezeta.

■ **Istripua Zarugalden**

Opel Corsa markako auto batek berrogei urteko emakume bat eta honen bost urteko semea harrapatu zituen Zarugalde kalean, ostiralean. Ondorioz, EMC, 40 urtekoa eta bere semea ospitalera eraman zituzten eta baita autoan zihonan beste pertsona bat ere. Autoak kale argi bat jo zuen istripua izan eta gero.

■ **Harrobien aurka**

Hogeita hamar lagun inguru elkartu ziren igandean Arrasateko harrobietan zehar mendi ibilaldia egiteko. Arrasate eta inguruko ekologista taldeek, ESK sindikatuak eta HB alderdiak deitutako irteera honen asmoa

zen jendeak modu zuzenean ezagutzea harrobiek ingurugiroan duten eragina.

Bide batez, Kanpanzar eta Kobate harrobiak ixtea, itxita dauden Etxaluz, Altzaurti eta Santutxu harrobiak berreskuratzea eta San Joxepekoak legea bete dezala eskatu zuten.

Ibilaldi hau deitu zuten alderdi politikoez, sindikatuak eta talde ekologistek jakinarazi zuten irailean gai honen inguruko bilerak egiten segituko zutela.

■ **Beharpenak**

Udako denboraldiari dagozkion beharpenak zabalik daude pasa den ostegunetik. Halaxe erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak eta halaxe ezarri da Arrasateko denda gehienetan. Hala ere, betiko moduan egon izan da lehenago ekin dituenik ere.

■ **Sustoa besterik ez**

Pasa den ostegun iluntzean Eguzki dorrearen kanpoaldean argazki ikusgarri hau atera zuen Antonio Murillok. Izan ere, suhiltzaileak lasterka eta presaka etorri behar izan ziren, dorreko garajeetan automobil batek sua hartu zuela eta. Azkenean, zorionez, ez zen bestelakorik gertatu.



“ Enpleguari buruzko estatistikek hiru zatitan banatzen dute Euskadi. Mutur onean Gasteiz eta Deba Garaia daude, %60,7ko eta %59,6ko lan koefizientea dutela. Jarraian Tolosa-Goierrri dute (%58,2).

Tartean Aiala, Donostialdea, Bizkaia-Kosta, Deba Behea eta Durangaldea daude. Mutur txarrean, berriz, Bilbo handia, ezkerrialdea eta eskuinaldea”.

**J. GUILLENEA**  
*Diario Vasco*  
1999.7.6



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



**MARKO-JARTZEAK**

**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

# Lezetxiki txukuntzera etorri dira

Bigarren urtez, auzolandegiak Lezetxikin arituko dira lanean uztailearen 5etik abuztuaren 1era arte. Iazko taldeek hasitako lanekin jarraituko dute, ingurua garbituz eta, orduan moduan, bi taldetan banatuko dira auzolandegiak. Bata, uztailearen 18a arte egongo da eta bestea, abuztuaren 1a arte.

Lehenengo taldea 15-18 urteko 24 gaztek osatzen dute eta pasa den astelehenetik Arrasaten daude.

Xabier Zubizarreta alkate berriak ongi etorria egin zien osoko bilkura aretoan, legealdi honetako lehen ekitaldi publikoan. Juanjo Agirre Gaztekutxako ordezkaria ere hantxe zen. Hauekin batera, hainbat politikari eta ordezkari izan ziren ekitaldian.

Juantxo Agirrek, Lezetxikiko aztarnategiak Euskal



Lanean arituko den lehenengo taldean 24 neska-mutil elkartu ziren.

Herrian duen garrantzia nabarmendu zuen, gogoraziz nola duela 33 urte Barandiaranek Euskadin ezagutzen den gizaki aztarnarik aintzinakoena hantxe aurkitu zuen. Aurten auzolandegietan egingo diren lanak ere zehaztu zituen.

## ITXURA BERRESKURATU

Adierazi zuen bezala, bideak egokitu, udalak erositako lur eremua garbitu, egurrezko seinaleak jarri eta, oro har, inguru horren jatorrizko itxura berreskuratuko dute, karaitza guztia erakutsiz eta

era berean, agerian utziz aztarnategi honek arkeologikoki duen garrantzia. Honetaz gain, unibertsitateko beste hamar gazte lanean arituko dira lur azpian dauden su harriak eta duela 1.000 urteko hezurak metodologia zientifikoa erabiliz ateratzen.

Juantxo Agirrek gorai-patuegin zuen Arrasateko Udalak kultura ondare honen inguruan erabili duen bidea.

Auzolandegiko gazte hauek Udalako Ingurugiro Eskolan izango dute egoitza eta Lezetxikin lanegiteaz gain, irteerak ere egingo dituzte Aizkorriera eta Hondarribira.

Albaro Arrizabalaga Aranzadiko arkeologoa, Asier Eizagirre teknikaria eta Ainhoa Aierbe begiralea lagun izango dituzte lanean.

Ongi etorri guztiak!

## MU Monterronera

Mondragon Unibertsitateak Monterronen izango du errektoretza 2001. urtetik aurrera.

Hortxe kokatuko da datozen bost-hamar urteotan, harik eta errektoretzaren behin betiko kokapena erabaki arte.

MUren errektoretzak bere tokia behar duela eta, unibertsitatearen errektoretza hiru fakultateetatik kanpo kokatu behar zela pentsatu zuten. Monterron leku egokia izango zela koan, oraingo errektoreak, Jabier Retegik, 2001. urtetik aurrera MUren errektoretza Monterronen kokatzeko baimena eskatu zion udalari. Eta udalak baietz esan du. Dena dela, egun hori iritsi bitartean, unibertsitateak pare bat bulego nahiko lituzke erabili Monterronen. Ekainaren 16an horixe eskatu zuten eta orain erantzunaren zain daude.

## Autopistaren aurkako salaketa




Larunbatean 10:00etan mendi ibilaldia aterako da Bergaratik.

Kutxaren atarian jende multzo hau protesta egiten izan zen asteartean. Banatu zuten idatzian, Kutxak autobidearen finantziazioan parte hartzen duela salatu zuten batetik. Bestetik, Elgoibarko Kutxaren aurrean egindako protesta batean Ertzaintzak bi gazte atxi-


lotu eta jipoitzeaz gain, orain epaitu egin dituztela salatu zuten. Kasu honetan ere, Kutxa sartu zuten. Bestalde, Bergarako frontoitik mendi ibilaldia egingo da autobidea egiten hasi diren lekurantz larunabtean 10:00etan. 11:00etan protesta egingo dute.

## Abade berria



Angel Ipina, 38 urteko musikolarra joan den astean abadetu zen Donostiako Artzain Onaren katedralean. Igandean, berriz, lehen meza esan zuen Eskoriatzako parrokian. Angel Ipinarekin batera, Aretxabaletako Jon Molina eta Oñatiko Luis Antonio Gomez ere apaiztu egin ziren.

# Arrasaten Txiron alkate



Alderdi abertzaleetako ordezkariak lau egun lehenago hitzartutakoa gogoratzen, Udalbatzarraren aurretik.

Lau egun lehenago hitzartu zuten bezala, EAJK, EAK eta EHk zuriz eman zuten botoa, jende askoren harridura sortuz, askok uste baitzuten EHk bere zerrendaburua bozkatuko zuela. Ez zen horrela izan, Lizarra-Garaziko itunaren inguruko batasuna agerian jarri nahi izan zuten eta.

Gainerako alderdiek beren zerrendaburuei eman zieten botoa. Paco Garciak lau boto lortu zituen; Antonio Palacios-ek, bi eta Joseba Ugaldek, bat. Inork lortu ez zuenez erabateko gehiengorik, Xabier Zubizarreta bihurtu zen alkate berria. Jose Mari Loiti adin

mahaiko lehendakariak egin zuen aldarrikapena, hitz hauekin: "Alkate, Xabier Zubizarreta da. Zorionak!". Eguerdiko 12:15ak ziren.

Osoko bilkura aretoa beteta zegoen. Gehienak EHko jarraitzaileak ziren, alkate berriari txalo zaparrada itzela oparitu ziotenak. Antonio Palacios PPko zinegotziaren izena aipatu zen hiru aldietan, berriz, txistuak eta irainak entzun ziren.

Euskal presoak, izan zituen gogoan alkate berriak. Orain artean alderdien artean izan diren liskarrak gainditzeko borondatea ere azaldu zuen,

egoera berri hau aprobetxatuz.

EHkoak Sebero Altube plazara abiatu ziren, han festa txiki batekin garaipena ospatzeko. Arratsaldeko 14:30ean, berriz, zinegotzi guztiak, zaharrak eta berriak, Mondragon hotelean elkartu ziren, elkarrekin bazkaltzera.



J. Ramos Prieto, PPko zinegotzia.

## Monterron-Musakola pasealekua bukatzeaz

Oraindik hasteke badago ere, Obenerreka kalearen gainean egingo den zubia eraikitzeko baimena emanda dago.

Beraz, laster hasiko dira Gernikako zumardia behar bezala lotuko duen zubi ikusgarri hau egiten. Gainera, Obenerrekatik Zigorrolaraino doan pasealeku zatia ere berriztu egingo da. Lan hauek guztiak, abendua baino lehen bukatzea

aurreikusita dago. Guztira, ia 134 milioi pezeta erabiliko dira Monterron eta Musakola lotuko dituen pasealekua bukatzen, Gernika oinezkoen zumardia deitzen dena, hain zuzen ere. Brues enpresa da lanok egiteko ardura duena.

Modu honetan, Gernikaizoneko pasealekuko lanak bukatu egingo dira. Pasealeku honen lanak duela 15 urte hasi ziren,

Eduardo Satostegi Munduate ingeniariaren proiektuarekin. Izan ere, Arrasateko industrializazioa eman zenean, etxe mordoska eraiki zen herrian. Etxe hauek, aldiz, herriko erdigunetik urruti samar kokatu ziren eta hori zela eta, ez zegoen loturarik ez euren artean eta ezta Arrasateko erdigunearekin ere. Orain, arazo hau behin betiko konponduko da.

## Jaiotzak

- Haizea Cabañes Iturbe. Ekainaren 18an.
- Julen Rodriguez Sanchez. Ekainaren 20an.
- Marina Hernandez Lana. Ekainaren 22an.
- Iker Gomez Valhondo. Ekainaren 22an.
- Eneritz Lage Sebastian. Ekainaren 23an.
- Leire Telleria Elejoste. Ekainaren 27an.
- Danel Mangana Alonso. Ekainaren 28an.
- Sara Saez Lumbreras. Ekainaren 29an.
- Beñat Zubillaga Fernandez. Ekainaren 30ean.

## Ezkontzak

- Jon Petreñas Etxebarria eta Amaia Urbina Zubizarreta. Elizaz. Ekainaren 19an.
- Santiago Moto Davila eta Sonia Gutierrez Barranca. Elizaz. Ekainaren 19an.
- Bixente Gonzalez Ozaeta eta Nerea Ibarondo Maskarriano. Elizaz. Ekainaren 26an.
- Eugenio Marquez Centeno eta Yanhua Zhu. Zibilez. Ekainaren 28an.

## Hildakoak

- David Delgado Jimenez. 20 urte. Ekainaren 24an.
- Eugenio Moreno Asensio. 60 urte. Ekainaren 24an.
- Avelina Angulo Rivacoba. 87 urte. Ekainaren 25ean.
- Julio Horriolo Ignacio. 28 urte. Ekainaren 26an.



## IBILI, IBILI ETA IBILI...

Gustura asko ibili dira Erguin Herri Eskolakoak hor zehar. Ezkerraldeko taldea, lehen zikloko ikasleek osotutakoa

da. Hauek, Arotz Eneako Ingurugirorako Hezkuntza Zentroan izan ziren. Ostera, beste argazkikoak

Lehen Hezkuntzako taldea da. Iparraldera jo eta Donibane Garazin geldiuinetxo bat egin zuten argazki hau ateratzeko.



## “GORA SAN FERMIN! GORA MARITXU! GORA TXATXILIPURDI!”

Honelakoxe itxura erakutsi zuen herriko plazak asteazkenean. Txatxilipurdik udalekuetan dauden haurrentzat San Fermin egun berezia antolatu zuen. 400 haur inguru hantxe ibili ziren “zezentxoengandik” ihes egin ezinda, plazaren bueltan egin zen entzierroan.

## IRAILA ARTE!

Familia eta Gizarte Hezkuntzarako zentroko ikasleak Madrilen izan ziren maiatzaren bukaeran. Ikasturtea bukatzen zitzaiala eta, lau eguneko txangoa egin zuten elkarrekin.



## ASTO BITXIA

*Putxiko*, Aramaioko Barajuen auzoan bizi da. 30 urte baino gehiago ditu eta bere bizkarraldea ikusita ez alperrik, gainera.

Orain, ondo merezita duen lasaitasunean bizi da asto bitxi hau, baserrikoen laztanen artean.

Argazkiko mutikoak, Eneko Uribe, baserrikoa, Julen Altube Barajuengo auzokidea eta Xabi Etxebarria arrasatearra dira.



## MAKINAK EZAGUTZEN

Lanbide Hastepeneko gazte talde hau Arkon izan genuen ostiralean. Bulegoetan eta zerbitzuetan nola lan egin ikasten ari dira gazte hauek. Hori dela eta, hemen ditugun ordenadore, prozesadore eta bestelako gailuak ikusi zituzten.



## URRUZUNO SARIA INSTITUTURA

Nerea Makazagak, Arrasate-Aretxabaleta institutuko ikasleak, bi sari lortu ditu aurtten: Urruzuno literatura lehiaketako poesia arloko saria bata, "Kolorezko bideak" lanarekin. Bestea, Frantziako enbaxadaren sari nazionala izan da. Zorionak, neskatu!!!

## BITTORI ERRETEGIA

*Eguneko menua • Kartako menua*  
**Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak**

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Mota guztietako zoruak • Lijatu  
eta barnizatuak • Erradapiak •  
Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu  
enpotratuak eta abar

MATERIALEN SALMENTA

**Erakusketa eta biltegia:**

Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20



## A ZE NOLAKO GARAIAK...!

Makatzena Kirol Elkartearen 25. urteurrena ospatzeko 51 lagun bildu ziren Mondragon hotelean. Sekulako giroa izan omen zuten, aspaldiko kontuak gogoratzen...



## HORI BAI DEBOZIOA!

Rocioko ama birjina pozik izango da Arrasaten erakutsi dioten debozioarekin. Domekan 2.000 pertsonatik

gora bildu ziren Zigorrolan ama birjinaren erromeria ospatzera. 22 autobus etorri ziren

kanpotik eta hamabostetik gora talde errejional izan ziren dantzan, tartean Madrilero Getafekoa.

## FRANTZIAKO MISTERIOETAN BARN

EKINeko emakumeak Frantzia aldean ibili dira Anguleme, Arcachon, Cognac... bisitatzen. Gazteluak, Cognac soto bat eta beste hainbat toki ezagutu zituzten.

Hango kulturaren jantzita eta "graduata" itzuli omen dira denak. Argazkikoa Rochefaucouldeko gaztelua da.







# Jena AUTO

## 2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

Arrasate Pressen eta Berrigararen, 2. eskuko autoen aldizkaria.

8. zenbakia. 1999ko uztaila.

Merkataritza teknikaria: Nerea Lazpiur. Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe eta Maddi Trubuelo.  
Tirada: 11.500 ale.

Berrigara

Arrasate  
P R E S S



San Kristobal eguna dela eta, Arrasateko eta Bergarako gidariek hainbat ekital-  
de egingo dituzte. Bergarakoek 11:30ean meza izango dute San Kristobal auzoan.  
Arrasatekoek, berriz, eguerdian San Viatorren. Ondoren ibilgailuen bedeinkapena  
izango da. Zorionak gidari guztiei!

VOLVO

FH16

VOLVO

VI-9066-0

SP

## SAN MARTIN KARROZERIAK

Autoaren konponketa  
orokorrean

San Juan Auzoa:  
Barrutitxiki pabiloak, 1  
Tel.: 943 76 07 97  
Mugikorra: 608 77 11 83  
20570 BERGARA

## GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

## DIMAS LARRAÑAGA


Motorrak, bizikletak,  
basorako makineria arina

2. eskuko motorrak

Amillaga, 27  
Industri gunea

Tel.: 943 76 16 18  
20570 BERGARA

# Autoa puntuan jarri beharra



Gidariek, uda partean, auto-mobila ohi baino gehiago erabiltzen dute. Bidaia luzeak egiteko sasoi izaten da eta, beraz, behar beharrezkoa da autoa puntuan jarzea.

**U**rte guztian autoa zaintzen badugu ez da inolako arazorik izango, baina badaezpada kome-nigarria izaten da errepidera irten baino lehen erroberak, frenoak, olioak, filtroak eta direkzioa aztertzea. Ura eta olioak kontrolatzea fun-tsezkoa da. Honako hauek dira autoaren azterketa sako-na egiteko, kontuan izan behar diren faktoreak:

**- Kanpoko prestaketa:**  
Dokumentazioa (zirkulazio baimena eta IAT-ITVko txarte-

la). Matrikula plakak irakurgarriak izatea. Atzerako ispiluak, lohi-babesak eta haizetako-garbigailuak egoera onean egotea.

**- Karrozeria:** Kabina, atek, kristalak, haizetakoak, leihoak, errobera pasoa eta aletak ondo dauden ikusi.

**- Barruko prestaketa:**  
Gerrikoen eta engantxeen egoera aztertu. Jarlekuak, barruko atzerako ispiluak eta bestelako elementuekin inolako arazorik dagoen ikusi.

**- Seinalizazioa:** Bonbila guz-tien funtzionamendua egiazta-tu, intermitenteetatik hasi eta aberien indikadoreak bitarteko denak. Erreflektanteak eta klaxona ere ondo dauden egiaztatu.

**- Argiztapena:** Aurreko faroen, (argi luzeak eta laburrak), ohiko argiztapenaren, behe lainoaren eta atzeko matriku-laren reglajearen kontrola.

**- Frenoak:** Rodillo bankoan frenoen eraginkortasuna aztertu. Balazta ekipoko zir-kuitu eta organoen ikuskape-na.


**- Direkzioa:** Direkzioko ele-mentu guztien (kaxa, errotu-lak, amortiguadoreak, artikula-zioak etabar) egoera egiazta-tu, lasaiera eta balizko kalteak prebenitzeko. Erroberen lerra-tzea egokia den ikusi.

**- Ardatzak eta suspentsioa:** erroberen errodamentuak, amortiguadoreak, malgukiak eta hauen ainguraketak, tor-tzio barra eta egonkorgailua-ren ikuskapena.

**- Pneumatikoen dimentsioa eta egoera, ordezeko errobe-**

**rak eta lllantak.** Erroberak gastatuta dauden edo ez begiratu behar da lehenbizi. Erroberen dibujoa gastatuta egotea zigortuta dago. Erroberak behar den bezala egon behar dira eta presio egokia izan behar dute, segurtasun handiagoo izateko. Bestalde, gaizki lerratuta baldin badaude, errobera barrutik edo kanpotik gastatu-ko da. Ondo dagoen errobera batek 40.000 kilometro inguru aguantatzen du; gaizki baldin badago, berriz, 25.000 inguru. Suspentsioa zaindu beharra dago, bestela autoak egon-kortasuna galtzen du.

**- Bastidorea, motorra eta transmisioa:** Txasisa, kanbio kaxa eta semiejeak. Erregariaren depositoa, tapoia eta kondukzioak. Zaraten maila egiaztatu. Eskapea eta isilgailua. Azkenik, kutsasura emisioak ere neurtu behar dira.



## ARABA Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

**Rufino Muñoz**

**Etxeberrieta 3  
ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 70**

**MARKA ETA MODELOA      MATRIK.      URTEA      EZAUGARRIAK      PREZIOA**
**AUTOLEYMA.** Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30

Peugeot 406 Break TD 2.1				*7
Peugeot 406 SRDT 1.9			AG, ABS	*7
Peugeot 106 Sketch 1.1				*4
Peugeot 106 L.Beach 1.1				*4
Peugeot 405 GRD				*2
Peugeot 605 SVI				*3
Peugeot 205 GRD				*2
Renault 21 GTX			AG	*3
Renault 19 Chamade D				*3

**BERRIA GARAJEA.** Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43

Ford Escort RS Turbo	SS-AJ	1990	Autoblock, EBD, 90.000 Km	*3
Peugeot 309 GTX 1.9	SS-AK	1991	LD, KE, IZ, LKA	*3
Renault Supercinco GTX	SS-AB	1988	KE, IZ, KA, AH	*2
Fiat Tipo 1.6 AGT	SS-AK	1991	KE, IZ, LK, LD	*3
Ford Orion 1.6 D	SS-AH	1989		*2
Ford Sierra 2.0 D	BI-AL	1986	LD, KE, IZ	*1

**GURTZAIN GARAJEA.** Almirante Bikuña z/g. Legazpi. Tf. 943 73 00 92 / 629 26 98 99

Land Rover Luzea			Kablestante mekanikoarekin, Motore berria	*3
Roller Karabana			Erabili gabe	*4
VW Eskarabajoa		1962	Arteztutako motore	*3
Toyota Land Cruiser		1990	Motore berria, Urte bateko garantia	*5
Nissan Patrol		1989	Zapai garaia	*3
Mercedes 300 D			Oso ona	*3

**ION AUTOAK.** Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49

Citroen Saxo D	M-VZ	1998	LD, KE, IZ, AG, 5 ate	*5
Discovery 2.5 TDI Luxua		1993	AG, SE bikoitza, 5 ate	*7
Citroen Evasion		1996	AG, Urte bateko garantia osoa	*7
Citroen XSara 1.9 TD SX 5 ate		1998	KL, Urte bateko garantia osoa	*7


AG: Aire girotua    AH: Aleaziozko hagnak    AL: Alarma    BA: Balbula anitza    IE: Ispilu elektrikoak  
 HT: Hard top    IK: Irrati-kaseta    IZ: Ibxigailu zentralizatua    KE: Kristal-jasogailu elektrikoak  
 KL: Klimatizagailua    LD: Lagunduriko direkzioa    LGT: Lau gurpiletako trakzioa    LK: Laino-kontrako argiak  
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak    NT: Narruzko tapizeria    SE: Sapai elektrikoak

\*1: 300.000 PTArate arte  
 \*2: 300.000-500.000 PTA  
 \*3: 500.000-750.000 PTA  
 \*4: 750.000-1.000.000 PTA

\*5: 1.000.000-1.500.000 PTA  
 \*6: 1.500.000-2.000.000 PTA  
 \*7: 2.000.000 PTAtik aurrera

**GARAJE MURILLO**

Mekanika orokorra

 Leizeaga 4 • Bergara  
 Tf. 943 76 13 84


Garraioaren mundua


 Garibai Etorbidea, 5  
 Tel.: 943 79 22 96  
 ARRASATE

**Larringan**
**GIDARI ESKOLA**  
 ARRASATE    ARETXABALETA

 Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza  
 Tel.: 943 79 64 50  
 ARETXABALETA

 Automobilaren  
 karburazio eta  
 elektronika

 Uribarri etorbidea 16.  
 Arrasate. 943 79 73 58

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
-------------------	---------	-------	-------------	---------

### KANPAZAR TAILERRAK. Bizkaia etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 943 79 41 98

Fiat Uno D	SS-AF	1989	IK, 3 ate	kontsultatu
Peugeot 309 GR	SS-Z		IK	Kontsultatu
Fiat Tipo	SS-AG	1990	IK, IZ, KE, 5 ate	Kontsultatu
Citroen C-15	SS-AG	1990	IK	Kontsultatu

### MECA TAILERRAK. San Andres 8. Arrasate. Tf. 943 71 24 72

Ford Escort 1.6	B-LF	1990	3 ate	*1
Renault Megane Alize 1.6	B-TX	1998	AG, IK, IZ	*6
Citroen AX	SS-AC	1988		*2
BMW 316	SS-AH	1990		*4
Renault Trafic 1.4 Combi	SS-AY	1997	Gainaltzatua	*6
Ford Mondeo 2.0 Ghia	SS-AP	1993	4 ate	*5

### MUGARRI. Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 943 79 07 44

Ford Fiesta DI		1997		*
Nissan Patrol 4x4 DI		1990		*
Mitsubichi GLS TDI		1998		*
Ford Maverik 4x4 GL TDI		1994		*
Ford Mondeo TDI		1996		*
Ford Mondeo TDI		1997		*
Ford Fiesta DI		1998		*
Ford Escort 1.4 I		1998		*
Ford Focus Ghia 1.6		1999		*
Ford Mondeo V6 24I		1997		*
Ford Mondeo V6 24I		1995		*

\*40 auto baino gehiago 200.000 eta 3.000.000 pta artean. Zatoz ikustera.

### OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tf. 943 76 47 74

Opel Vectra	Hainbat	92..99		Negoziatzeko
Opel Omega	Hainbat	92..99		Negoziatzeko
Opel Astra	Hainbat	92..99		Negoziatzeko
Montego 2.0 I LXI		1992		Negoziatzeko
Citroen ZX 1.9 D 5 ate		1997		Negoziatzeko
Renault Clio 1.9 D		1996		Negoziatzeko
Peugeot 306 Stile 1.6		1996		Negoziatzeko

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haginak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak  
 HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak  
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak  
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

\*1: 300.000 PTara arte  
 \*2: 300.000-500.000 PTA  
 \*3: 500.000-750.000 PTA  
 \*4: 750.000-1.000.000 PTA

\*5: 1.000.000-1.500.000 PTA  
 \*6: 1.500.000-2.000.000 PTA  
 \*7: 2.000.000 PTatik aurrera

**JASO GARAJEA**

Autoen konponketa orokorra

Amillaga 1, 4 pabilioia.  
Bergara. Tf. 943 76 33 00

**LAGUN GARAJEA**

Javier Gallastegi Arenaza Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

**ORAIN HELBIDE BERRIA!**  
Santalaitz 3. Beragara. Tf. 943 76 11 20

Garajeko mandoen kopiak egiten ditugu!

**Txorno**  
Auto-errekabioak

Ibargarai 33, behea. BERGARA  
943 76 29 95

# Renault Arrasaten, Ford Oñatin eta (e)

Aurtengoa azken urteotako onena izango da auto salmentari dagokionez. Deba Garaian, behintzat, horrela izango da, lehen lau hileko datuak hori erakusten baitute.

**U**SI erakundeak Estatu Espainolean matrikulatutako autoen datuak jasotzen ditu. Erakunde independentea da eta marka guztietako auto saltzaileei banatzen dizkie datuak. Dena Autok Deba Garaian azken 10 urteotan matrikulatu diren autoei buruzko datuak eskuratu ditu. Herri guztietakoak lortu ditugu, Elgetakoak izan ezik. Beraz, Deba Garaia iruz ari garenean, kontuan izan Elgetako datuak jasota ez daudela.

## 1999 urte bikaina

Aurtengoa azken hamarkadako onena izango da autoen salmentari dagokionez. Urte hasieratik maitatza arteko datuak baino ez ditugu, baina urteko lehen bost hiletako joera ikusita, esan dezakegu 1989ko datuak gaindi daitezkeela.

1989 izan da orain arte urterik onena autoen salmentari dagokionez. 2.038 automobil saldu ziren Deba Garaian osoan urte horretan. Orduetik hona gora beherak izan dira, baina beti ere 1989. urtean


saldu zen auto kopuruaren azpitik. Iaz izan ezik, beste urte guztietan, 1990. urtetik 1997ra arte, 1.500 automobil baino gutxiago saldu dira Deba Garaian.

Iazkoa urte oso ona izan zen, azken hamar urteotako bigarren onena. 1.807 automobil saldu ziren, hamarkadako batzbestekoa (1.456 auto) baino nabarmen gehiago.

Autoen salmentaren merkatuak iaz erakutsitako joera errepikatzen ari da aurten eta urte amaierarako marka guztiak hautsiko direla esan dezakegu. Lehen lau hilekoan 764 auto saldu dira Deba Garaian. Kontuan izaten badugu maitatza eta ekaina, batez ere, eta urte bukaerakoak hilaibete onak izan ohi direla, aurreikus daiteke 1989. urteko marka (2.038 auto) hautsiko dela aurten. Aurtengo maitatzean, esaterako, 209 automobil saldu dira Deba Garaian.

## Dieselak eta gasolinakoak parean

Azken urteotan nabarmen gora egin du diesel motordun autoen salmentak. Hamarkada hasieran askoz ere gehiago ziren gasolinazkoak, baina gaur egun parekatuta dago gasolinarekin eta gasolioarekin dabilzan autoen salmenta. Aurten, lehen lau hilekoan, gasolinarekin dabilzan 387



**ARRASATE KONPONKETAK**

**ad** Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- LUKAS Autoinjekzio zerbitzua
- HONDA eta LADA autoen salmenta

Saldizpe kalea, 5 • Arrasate •  
Tel.: 943 79 95 41

**AUTO DESGUACES BERGARA**

Tel.: 943 76 35 47 (desguazekoa) • 943 79 76 33 (etxekoa)

**BIGARREN ESKUKO PIEZAK  
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK  
GRUA ZERBITZUA**

**LENIZ**  
AUTOESKOLA

**BAIMENAK**

A1 - A - B - BTP - C1 - C - EC - D1 - DE

**ESKORIATZA** Arana, 13  
Tel.: 943 71 41 86

**ARRASATE** Aldai, 9  
Tel.: 943 79 46 04  
Faxa: 943 77 01 86

# el Bergaran, markarik salduenak



auto saldu dira eta beste 377 gasoil motordunak.

Diesel motordun autoen salmentaren gorakadaren arrazoi nagusia da era honetako autoen motorrak asko hobetu direla. Ikusi besterik ez dago orain dela hamar urteko diesel motordun auto bat eta gaur egungo beste bat.

Teknologiaren aurrerape-nak, beraz, ia-ia gasolinarekin dabilzanan parean jarri ditu dieselak. Bestetik, azkenaldian gasolioaren prezioak gora egin badu ere, gaur egun oraindik ere gasolina baino merkeagoa da.

Dieselak beste autoak baino zertxobait garestiagoak dira, baina errepidean asko ibiltzen denarentzat merkeagoa da diesela bestea baino.

## Ohiko markak nagusi

Renault, Ford, Citroen eta Opel markako autoak dira salduenak Deba Garaian. Betiko markak dira eta, horregatik, ezagunenak. Alde batetik, antzinasuna eta, bestetik, behe eta erdi mailako segmentuetan, auto eskaintza zabale-na izatea dira salduenak izateko arrazoi nagusiak.

Azpiramaragarria da, Renault izatea Arrasaten auto gehien saltzen duen marka, Ford izatea Oñatin gehien saltzen duena eta Opel izatea Bergaran gehien saltzen duena. Marka hauen kontse-sionario nagusiak Arrasaten, Oñatin eta Bergaran daude: Renault-ena Arrasaten (Meca), Ford-ena Oñatin (Amets) eta

Opel-ena Bergaran (Ola).

VW, Seat eta Audi autoak ere asko saltzen dira Deba Garaian. Seat betiko marka dugu; VWek, berriz, salmenta onak izan ditu beti, guretzat marka "berriagoa" izan arren; bestalde, azken aldian indarrean dagoena Audi da. Marka honetako gero eta auto gehiago ikusten dira, goi mailako autoen segmentokoak izan arren. Urte onak bizi ditugu ekonomiari dagokionez: langa-beziak behera egin du, interes tipoak sekula baino baxuago daude eta inflazioari eutsi egin zaio. Koiuntura ekonomiko onak kontsumoa handitzea ekarri du. Horregatik, aurtengo urte bikaina izango da autoen salmentari dagokionez: sekula ezagutu den onena.

## Auto salmenta 1999ko lehen lau hilekoak

	Bergara	Antzuola	Oñati	Eskoriatza	Aretxabaleta	Arrasate	Deba Garaia
Renault	24	3	15	8	6	72	128
Ford	18	3	30	11	13	52	127
Citroen	37	6	15	7	9	45	119
Opel	40	3	12	3	7	50	115
VW	10	3	10	6	13	23	65
Peugeot	9	2	6	3	8	18	46
Seat	12	0	5	1	8	18	44
Audi	8	2	3	1	2	9	25
Nissan	6	1	0	2	2	11	22
Hyundai	1	1	2	1	1	6	12
Fiat	2	0	0	0	0	4	6
BMW	2	1	1	0	0	0	4
Mercedes	2	0	1	0	0	1	4
Rover	0	0	0	0	2	0	2
Beste batzuk	11	1	3	1	4	25	45
<b>Guztira</b>	<b>182</b>	<b>26</b>	<b>103</b>	<b>44</b>	<b>75</b>	<b>334</b>	<b>764</b>

**ALMACENES LASCAR S.L.**


Amillaga 32, BERGARA.  
943 76 10 38 / 76 19 11. Faxa 943 76 59 60.

**Olio aldaketa • Errubera aldaketa**

**Auto garbiketa: kanpotik eta barrutik**

**Errebisio orokorra:**

frenoak, bujiak, korreak...



**35.000**  
**IRAKURLE**

**Berrigara Arrasate**

**DENA AUTO**

**2. ESKUKO  
AUTOMOBILEN GIDA**

## **Deba Garaiko auto saltzaileok!** Aukeran

dituzuen erabilitako autoen eskaintza, **Bergara, Antzuola eta Arrasateko** ia etxe guztietara helduko da. **35.000** inguru irakurlek izango dute Dena Autoren berri.

**Dena Auto**, Deba Garaiko 2. eskuko automobilen gida, berriz ere zuekin, 1999an **eskaintza berrieekin** dator.

### **Kontratazioa**

Nerea Lazpiur

Arrasate Press  
Otalora kalea 31  
20500 Arrasate.  
Gipuzkoa

Telefonoak:

943 76 03 97

943 71 25 11

Faxak:

943 76 29 77

943 71 23 95

Berrigara

Errotalde jauregia z/g  
20570 Bergara.  
Gipuzkoa

**Auto saltzaileok ez duzue hau baino aukera hoberik izango zuen berri emateko!**

Ondorengo aleak urriaren 15ean eta azaroaren 26an argitaratuko dira

## **1999rako eskaintza berezia** egin nahi dizuegu.

Lerroaren eta publizitate moduloaren prezioak hauexek izango dira:

**LERROA: 1.300 pta**

**PUBLIZITATE MODULO: 3.000 pta**

## **Sei egin eta bost ordaindu:**

Bost lerro kontratatzen badituzu, seigarrena doan jarriko dizugu.

Eta urte osorako publizitatea kontratatuz gero, hau da, sei intserzio eginez gero (edozein modulaje), bost bakarrik kobratuko dizkizugu.



## BERGARA

### ① Udalekuak gainezka


Xipizaro elkarteak urtero antolatzen dituen udalekuak abian dira dagoeneko. 400 neska-mutikok parte hartuko dute aurtengoan, izan ere, orain arte 300 haurrentzako muga zegoen ezarrita, baina eskaerak uste baino ugariagoak izan dira. Hori dela eta, zabaldu egin behar izan dute kopurua.

Hortaz, hiru eta hamalau urte arteko gazteak makina bat ekintza egiten arituko dira egunotan. Honetarako egokitu egin dira San Martin de Agirre eta Martinez de Irala eskolak eta Migel Altuna institutua. Bost urteko haurrek mendi irteerak izango dituzte eta igerilekuak, liburutegia eta kiroldegia ezagutzeko parada izango dute. Nagusiagoek, ostera, ogia nola egiten den ikusiko dute eta suhiltzaileen lana ezagutu ahal izango dute hurbiletik.

## ANTZUOLA

### ② Txirrindulari lasterketa

Herriko jaien bezpera den asteburu honetan, 23 urtez azpi-



koentzako txirrindulari lasterketa izango da igandean. Goizeko 09:30ean aterako da herriko plazatik, eta iaz moduan, 130 kilometro egin beharko dituzte parte hartzaileek. Eguerdiko 12:30ak ingu-

ruan bukatzea espero da. Aiatui Txirrindulari Elkarteak da lasterketaren antolatzailea.

Iaz Caja Rural taldeko Jon Bruk irabazi zuen, Antzuolan dagoeneko klasikoa bilhurtu den lasterketa hau.

## ESKORIATZA

### ③ Liburua bainuetxeaz

1894. urtean, Eskoriatzako Torrebasoko bainuetxea itxi egin zuten eta Bazterberoko Txartyn taldearen diru laguntzarekin, marianistek erosi zuten gero. Sasoi haietan, bainuetxeak sona handia zeukaten eta jendea sendatzeko ezezik, uda pasatzera ere joaten zen bainuetxeetara. Aipagarria da Alfonso XII. erregearen arrea hortxe hil zela.

Hau guztia orain, "Eskoriatzako bainuetxea: del balneario a los marianistas" Jose Maria Urkia Etxaberen liburuan jasota gelditu da.

## OÑATI

### ④ Udan ikasten

Soziologia Juridikoko Institutuaren X urteurrena ospatzeko, 50 ikasle inguru udako ikastaroak egiten izan dira Unibertsitate zaharrean aste honetan zehar. Legea eta komunikabideen arteko lotura aztertu dute eskoletan.

Ikastaroa gaur bukatu da Donostiako Orfeoak San Migel elizan eman duen konzertu batekin.

**JUBAR**  
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

**Txitxinpe**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikan erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82

**ARTEA**

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95  
ARRASATE

**TOKION**

ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN SALMENTA

Erdiko Kale, 7  
Tel.: 943 79 91 64 • ARRASATE

**LOGOPEDIA ZENTRUA**  
ARRASATE

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzat.

Erdiko kale, 37 - behea  
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE


**BASABE JATETXEA**

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETA

# “Liskar giroa gaindite



Plazan aurkitu dugu, goizeko bederatziatan, bikote batekin hitz egiten. Bizkarretik zorro beltz bat du zintzilik. Alkatetzan ez dago inor. Berak pizten

ditu argiak, balkoia ireki... etxean dagoela esan liteke. Ekainaren 13ko garaipenak indarberritu egin duela dirudi. Xabier Zubizarreta da, Txiron, joan den larunbatetik laugarren aldiz Arrasateko alkate aukeratua. Bigarren eguna du lanean alkatetzan.

— Ez zenuen asmorik berriro ere alkatetzara aurkezteko. Zer gertatu da?

— Nire ustea zen nahiko denbora egina nuela udaletxean lanean, baina alderdiaren eskaria izan zen, berriro ere aurkez nendin. Azkenean, amore eman eta onartu egin nuen.

— Lau hauteskunde jarraian irabazi eta gero, Xabier Zubizarreta balore sendoa bihurtu da. Xabierren ondoren, zer?

— Neu balore naizen edo ez, ez dakit, baina ni ez nagoenean egongo dira beste batzuk. Hemen zinegotzi talde bat ibili da lanean eta balorea hortxe dago. Talde lana gurean eta beste alderdien artean ere egon da. 87tik hona egin diren gauza asko alderdien arteko elkarlanaren ondorio dira.

— Hauteskunde kanpainan atentzioa eman zigun apenas hitz egin zenuela zeure alderdiaren programari buruz.

— Egia da ez dugula hainbeste

zehaztu programa. Baina horrek badu motibo bat. Administrazio bidez lortu behar ditugun helburuen gaintetik, badugu beste testuinguru bat garrantzitsuagoa: orain dela gutxi abiatu den Euskal Herriaren erakundetzea, eraikuntza nazionala.

Ni klabe horretan ibiltzeak esplikatu lezake programaren zenbait zertzelada ez azaldu izana. Jendeak ere horrela ulertzen du. Arazo bat dugu konpondu gabe, arazo nazionala, eta hori konpontzen ez den bitartean, gure eguneroko bizitzan ezingo dugu normalizatu, baldintzatuta dagoelako. Dena den, programa erabiltzeko asmoa dugu.

— Espero zenuen halako garaipen zabala izatea ekainaren 13an?

— Ez. Ez genuen pentsatzen hainbestearinoko aldaketa sor zitekeela. Jendeak horrela erabaki du eta erantzukizun handia bota digu bizkarrera. Aurre egin beharko diogu horri, jakina.

— Nola ulertu behar da EAJ-EAren jaitsiera Arrasaten?

— Ez dira bete-betean sartu nazio eraikuntzaren apustuan. Zuhurtzia handiegirikin ari dira. Oraingo egoeran

# eko obligazioa dugu”

nahiko eroso bizi dira, baina ez erabat. Egoera honetatik berrira salto egiteko zinezko apustua egin beharra dago eta EAJ-EAk ez dirudi hori erabat asumitu duenik. Jendea konturatu egiten da eta, horregatik, haien hainbat boto absentsiora joango ziren eta beste hainbat gurera. Hala ere, bizitzen ari garen egoera aprobetxatu beharko lukete saltoa egiteko.

— **Jose Mari Loitik ia bi urte egin ditu alkate moduan. Zer nota jarriko zenioke?**

— Kontua ez da pertsona bati nota ipintzea edo ez. Edozein kasutan ere, herritarrek esan beharko dute hori.


— **Izan da idatzi duenik zu, Jose Mari Loiti eta Paco Garcia berriz ere hor egoteak zaildu egin dezakeela udalaren gestioa.**

— Egia da pertsona batzuk errepikatu egiten garela bi edo hiru aldiz udaletxean, baina hori beste erakundeetan ere gertatzen da. Erakundeak ezagutzeak eta esperientziak egiten dute pertsona batzuk behin baino gehiagotan aukeratuak izatea. Hori fenomeno unibertsala da.

Gure arteko ika-mikak udalez kanpoko arrazoiengatik izan dira askotan. Hala ere, gobernatzen ere izan gara. Gure arteko aldeak inportanteak izan daitezke zenbait kasutan, baina, hala ere, lortu dugu behin baino gehiagotan elkarrekin gobernatzea.

— **Alternatiba gisa lau**

## “Txiron pasatu dok!”



Xabier Zubizarretaren aitak 18 bat urte izango zituen, plaza ondoko Mendia etxekoek deitu ziotenean karreretako auto bat Lasarterako autodromora eramateko. Izan ere, eraman behar zuen gidari italiarra ez zen agertu Arrasaten.

Zubizarreta gaztea gidari zebilen kamioi batekin eta ezin ezetzik esan. Atera bai beribila garajetik, baina Erdiko kaletik behera doa-

la, frenatu ordez azeleratu egin zuen eta Portaloia ziztu bizian pasatu omen zuen.

Abaila hartan pasatzen ikusi zutenean “Txiron pasatu dok!” esan zuten batzuek, garai hartako Chiron bolido gidari amerikar baten izena aipatuz.

Gidariak Monte parean lortu zuen autoa geraraztea. Zuri-zuri atera omen zen. Harrezkero Txiron izango zen.

## “Oraingoz ia adostua dago Lizarra-Garazin dauden alderdiok parte izango garela udal gobernuan”

**emakumeren izenak aipatzen zituen: Blanca, Ino, Mari Angeles eta Amaia.**

— Beste batzuek arazoak egun batetik bestera konponduko balituzte, nik ez nuke arazorik izango erretiratzeko. Baina kontua ez da pertsonena. Pertsonen gainetik proiektu-

tuak daude eta hortxe bilatu behar da eragina. Bereziki elkarrekiko errespetua.

— **Gai izango zarete azken urteotako liskar giroa gainditzeko?**

— Nahi behintzat, bai. Nik uste dut obligazio hori

dugula: liskar giroa gainditu eta benetan irtenbideak bilatzen saiatu.

— **Larunbatean eratze ekitaldia hasi aurretik EAKo eta EAJko zinegotziekin bildu zinen, ate ondoan. Zer hitz egin zenuten?**

— Gogoratzea besterik ez genuen egin aurretik hitzartutakoa. Alegia, botoa zuriz emango genuela. Besterik ez.

— **Zaila izan zen adostasuna lortzea lau egun lehenago egin zenuten bileran?**

— Ez. Ez zen bat ere zaila izan. Oso denbora gutxi egin behar izan genuen horretarako. Hasieratik garbi geratu zen utzi egin behar zitzaiola gobernatzen boto gehien irabazi zituen zerrendari.

— **Nola osatuko duzue Gobernu Batzordea?**

— Oraingoz ia adostua dago Lizarra-Garazin gauden alderdiok parte izango garela. Ezker Batua ere hortxe izango litzateke. Esan dute programa eztabaidatu nahi dutela, baina lehen ere elkarrekin gobernatu genuen eta orain ere posible izango da. Egutegiak 30 eguneko epea jartzen du, baina guk epe laburragoan egin nahiko genuke. Gaur bertan, asteartean, bile- ra dugu hortaz hitz egiteko.

— **Non geratuko dira sozialistak?**

— Euskal Herriko alderdien artean benetako inkognita alderdi sozialista da. PPK ez du ikararik egingo, beraien



Zinegotzi guztiek, zaharrak eta berriak, lagungiroan bazkaldu zuten larunbatean.


proiektua gurearen kontrakoa delako. Alderdi sozialistaren historiari begiratzuz gero, aldiz, ikusten da militante asko ondo leudekela Euskal Herrira begira antolatutako egitura batean. Behartuta dago hausnarketa sakona egin, bide horretatik abiatzeko.

— **Zergertatuko da aurreko korporazioak bultzatu dituen proiekturik handienekin?**

— Denon artean adosten duguna. Abiatuta daudenak abiatuta daude eta abiatu barik daudenak errebisatu behar diren neurrian, errebisatu beharko dira. Nire helburua ez da halako edo halako proiektua ez egitea. Hori eztabaidatzen joango gara. Hori baino garrantzitsuagoa iruditzen zait berreskuratzea lehen genuen estiloa udalaren barne funtzionamenduan eta kalera begirako funtzionamenduari dagokionez.

— **EHK gehiengoa du orain mankomunitatean. Erantzukizun handiagoa hartu beharko du, ezta?**

**“Abiatuta dauden proiektuak abiatuta daude eta abiatu barik daudenak, errebisatu egin beharko dira”**



Xabier Zubizarreta Joseba Ugaldere zorianak jasotzen.

— Gehiengoa badugu, boto gehien eta zinegotzi gehien atera ditugulako da. Logikoa izango litzateke mankomunitateko lehendakaritza EHrena izatea. Lehen ere izan genuen. Kontua da lan egitea, azken batean mankomunitatea udalen zerbitzuan dago.

— **Gipuzkoako Foru Aldundian sartzeko aukerarik bai?**

— Hori gure eskuetan bakarrik ez dago. Guk, dena den, apustu garbia egiten dugu diputazioan sartzearen alde.

— **Diputatu izendatzen bazaituzte, utzi egingo zenuke alkatetzatza?**

— Nire lekua alkatetzan dago eta ez dut pentsatu ere egiten diputatu izan naitekeenik.

— **Elorrioren EHk ez du Lizarrak-Garazi akordioan adostutakoa bete eta kendu egin dio alkatetzatza EAJ-EAri.**

— Beste herri batzuetan ere ez da egon: Errenterian,

## LABURREAN

- **Kolore bat:** berdea.
- **Plater bat:** baba gorriak.
- **Herri bat:** Aretxabaleta.
- **Kirolari bat:** Retegi II.
- **Liburu bat:** ez dut nahi batekin bakarrik geratu.
- **Amets bat:** Euskal Herri librea ikustea.
- **Abesti bat:** “Maite ditut, maite, gure bazterrak”.
- **Politikari bat:** Argala.
- **Mendi bat:** Hiruatx, Urkulu ondoan.
- **Enpresa bat:** Aurki (Fagor Automation).

kasu. Hori herri jakin batzuetan gertatzen da. Dena den, ez dut ondo ezagutzen zer gertatu den eta eurek esan beharuko lukete. Horiek bitxikeriak izaten dira.

**— Zeintzuk dira Arrasatek legealdi honetarako dituen erronkarik handienak?**

— Nondik begiraten den. Batzuentzat kirol arazo bat. Beste batzuentzat, etxebizitzarena edo emakumeek bizi dutena. Gauza interesgarri asko daude egiteko, adibidez, kultura etxea.


Ingurugiroari buruzko aro bat hastea ere inportante izan daiteke. Hor daude zaratak, ibaiak, harrobiak... Bizimoduak behartuta, txikitzen ari gara gure ingurua. Horregatik, oreka bilatu behar dugu gure ingurumariarekin. ■

Joxe Aranzabal



**ATBK bi orduko saioa eskaini zien, joan den larunbatean, Deba Garaiko udalbatzen eratzte ekitaldiei. Goizeko 11:30etan hasi zen, bilkura gehienak baino ordu erdi lehenago.**


**Inork baino lehenago eta zehatzago eman zituen alkate berrien albisteak: argazkiak, grafikoak, elkarrizketak, bideoak eta analisiak. Hogei laguneko talde bat, saio borobila eginez. Aurkezpena, ekainaren 13an bezala, Mikel Lezamizek, Maria Agirrek eta Mikel Irizarrek egin zuten. Bikain.**



**ANTZUOLAN. HERRI BARRUAN**

**8 ETXEBIZITZA FAMILIABAKAR  
ADOSATUAK, LORATEGIAREKIN  
LASTER ERAIKIKO DIRA**

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: 943 76 90 00



# Ane Lopez de Bergara Espainiako txapelduna

Ane Lopez de Bergara arrasatearra da Espainiako hegats txapeldun berria ur gaineko 1.500 eta 800 m.etan.

Joan den asteburuan Ourense aritu zen Espainiako txapelketan eta lau probatan hartu zuen parte. Txapela ur gaineko 1.500 eta 800 m.etan lortu zuen. Beste bietan azpitxapeldun gelditu zen. 200 ea 400 m.etan hain zuzen ere. Bi hauetan txapela lortzetik segundu batera gelditu zen arrasatearra.

Ane urtarrilean hasi zen entrenatzen eta igerilekuan hasi zenean min hartu zuen. Hori dela eta, ez zuen espero asteburuan lortutako emaitza; dena dela, oso gustura dago.



Eneritz eta Ane Espainiako txapelketan izan ziren asteburuan.

## EUROPAKO TXAPELKETARA

Hautatzaileak, Mallorcan ari den errusiar batek, Ane hau-

tatu du Europako txapelketan aritzeko Espainiako taldearekin batera.

Txapelketa datorren aste-

buruan jokatuko da Atenasen eta Anek ur gaineko 1.500, 800, 400, 200, 4x200 eta 4x100 m.etako laterketetan arituko da Greziako hiriburuan.

Berarekin batera beste 3 neska eta 6 mutil arituko dira. Tartean tolosar bat eta iruñear bat daude.

## ENERITZ JAUREGI

Eneritz Jauregi ere izan zen Espainiako txapelketan. Eneritzek haragi etena izan du, baina lehiatzea erabaki zuen. Minaren eraginez Espainiako txapelketan lortutako emaitzak ez ziren izan espero bezain onak: 17. izan zen ur gaineko 50 m.etan, 19. 100 m.etan eta hamaikagarren 50 agnean.

## ATLETISMOA Gavilanek ezin izan zuen



Oskar Gavilan Arrasate Kirolak Atletiko taldeko kirolaria bederatzigarren izan zen Espainiko gazte mailako disko jaurtiketako txapelketan. 34 metro eta 96 cm.ko jaurtiketa egin zuen. Bere markarik onenetik 2 m.ra gelditu zen. Gauzak horrela, ezin izan zuen ezer egin Eibaroko Umbeko pistetan. Txapelketan parte hartzeko behar diren 35 m. baino marka apalagoa lortu zuen eta.

Datorren denboraldian junior mailan arituko da Oscar

Gavilan, aurten dagoeneko amaitu du-eta denboraldia.

## TXIRRINDULARITZA Afizionatuak sasoiko



Born Jay taldeko afizionatuek ere emaitza bikainak lortzen ari dira denboraldi honetan. Igan-dean David Sojo laugarren eta Oscar Askasibar bosgarren izan ziren Alegiko Languarre sarian. Larunbatean Lesakako lasterketan izango dira eta igandean, berriz, Lehendakari sarirako puntuagarria den Antzuolako lasterketan.

Lehen urteko haur mailako JMA taldeko txirrindulariek amaitu dute dagoeneko denboraldia, Tolosan jokatu zen Gipuzkoako errepideko txapelketan. Tropelean aritu ziren txirrindulari gehienak Altzoko igoera iritsi arte. Garaipena Artiz Arrospidek lortu zuen, Oriako taldeko txirrindulariak. Iñaki Juldain JMA taldekoa 100 m atzerago zetorren tropeltxoan helmugaratu zen eta 12. izan zen. Raul Blazquez berriz, 15.

Bigarren urteko haur mailakoak, berriz, Urnietan izan ziren. Gogorra, oso, txirrindulari hauek jokatu beharreko lasterketa. Garaipena Iban RUIPEREZek eskuratu zuen, Brue-

sa taldekoak. JMA taldetik sei txirrindulari aritu ziren, baina Aitor Frutos izan zen helmugaratu zen bakarra, 28. tokian. 78 txirrindularitik 49k bakarrik lortu zuten amaitzea.

## ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Igan-dean izango dute Arrasateko zikloturistek uztaileko bigarren bizikleta irteera. Hauek ere udako ordutegia dute, eta goizago aterako dira. Goizeko 08:30ean, hain zuzen ere. Aste honetan kostaldera joko dute. Maltzagatik Debara, Zestoara, Azpeitira, Urretxura, Oñatira eta azkenean Arrasatera. Guztira 114 km dira eta tartean Itziaroko eta Udanako mendeateak igoko dituzte.

**M** Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**ARENAZA**  
Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**  
Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 78

**OSORIK  
PUB**  
Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**HIES  
EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiraletan  
5etatik 8etara.  
Tel.: 943 79 26 99

# Aitor Zabaleta bizkorrena Udanako I. igoeran

Lehiakideek ezin izan zuten ezer egin Udanan Aitor Zabaletaren barketaren aurka. Bigarrenari 19 segundu eta 27 ehuneneko atera zizkion. Euskal Herriko autoentzako mendiko probetan seigarrena izan zen Udanako igoera. Hasiera batean 59 gidarik eman zuten izena, baina gutxiago izan ziren 4.610 m.ko ibilbidea egin zutenak.

Bergararra izan zen atzoan ere bizkorrena eta bere Lolarekin 2 minutu 19 segundu eta 40 ehuneneko denbora egin zuen. Bigarren tokia Ruben Gartzia eta Lebeitik jokatu zuten. Gartzia Ford Escort Coswoth batekin izan zen bigarren eta hirugarrena, Aitor Zabaletak baino 21 segundu eta 3 ehuneneko gehiagorekin, Lebeiti izan zen, bere Renault 5arekin.

## ISTRIPUA

Baina istripu batek ilundu egin zuen hasierako ikuskizuna. Izan ere, lasterketako autoen aurretik joaten diren zero auto-



Aitor Zabaleta lehenengo da Euskal Herriko autoen mendiko txapelketan.

etako batek, Mitsubishi Evolution 6 batek, igoera ikusten zeuden 5 ikusle harrapatu zituen. Bostak ospitaletara eraman behar izan zituzten. Horietako bi igande iluntzean atera ziren, baina beste

hirurak oraindik ospitalean daude. Senar-emazteak, bata Arrasateko ospitalean eta beste Zumarragan daude; Zegamako neska bat, berriz, Donostiako ospitalean, egoera larrian.

Dirudienez, ikusleak errepide baztarrean zeuden, baina bazterreko hesien aurrealdean. Pilotoak bihurgunea zabal hartu eta autoaren alde batekin aurretik eraman zituzten ikusleak.

## Karate jaialdi arrakastatsua

Joan den larunbatean jokatu zen Eskoriatzako kiroldegian Saioa karate eskolako antolatutako "Saioako karateka onena"ren txapelketa. Eta arrakastatsua izan zela baieztatu digute antolatzaileek. "Hasiera batean espero baino parte hartzaile gehiago aritu ziren, 53 hain zuen ere, Oñati, Bergara, Eskoriatza eta Arrasatekoak".

Txantxikuarrak eta arrasatearrak izan ziren nagusi. Hamahiru urte aspikoetan bi herrietako karatekek eraman zituzten garaikurrak eta

adin horretatik gorakoetan ere bi herri hauetako karateken artean banatu zituzten garaikurrak: nesken artean arrasatearrak izan ziren nagusi eta mutilen artean, berriz, bien artean banatu zituzten sariak.

Saioa Karate Eskolako arduradunek jakinarazi digute datorren urtean ere berriz antolatuko dutela. "Izan ere, bestela ez da honelako txapelketarik antolatzen inon. Datorren urterako, gainera, Aretxabaletako eta Irungo taldeek parte hartuko dute".



Arrasatearrak eta oñatiarrak izan ziren nagusi.

aste gazte

■ **UDAKO OPORRALDIAK**

• Udarako planak egiten bazabiltza, Gazte Bulegoan badugu informazio interesgarririk: kanpina, hotela, baserri turismoa, gazte-aterpetxe-ikasle txartelak...

■ **KONTZIENTZIA ERAGOZPENA**

• Intsumisioa edo kontzientzia eragozpenaren gainean zalantzarik baduzu, pasa zaitez Gazte Bulegoti. Hemen emango dizugu paperak tramitatzeko behar duzun informazioa.

■ **AUZOLANDEGIAK**

• AEDk Kanboko Xalbador Ikastegia konpontzeko auzolandeia antolatu du, uztailearen 18tik 30era. Izena ematea, uztaileak 13.

■ **LANA**

Arrasateko Udalak gidaria, peoia eta ehorzleak behar ditu. Aldi berean, Ingurugiro Eskolako eta euskaltegiko aldi baterako irakasle lan poltsa osatu nahi da. Epea: uztaileak 12.

• UEMAK hizkuntza normalizatzailea behar du. Epea: uztaileak 16.

• Asteazkenero jasotzen dugu asteburuan egunkarietan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma. Nahi izanez gero, etorri bulegora.

■ **LEHIAKETAK**

• Arrasateko Udaleko Emakume Sailak antolatuta, Komiki Ez Sexisten II. Lehiaketa. Zuri-beltzean edo koloretan, lanek euskaraz nahiz gaztelaniaz eta 2-4 orri arteko luzera behar du. Epea: uztaileak 13.

**Berri gehiagorako:**  
**GAZTE ZERBITZUA**  
☎ 943 77 00 65

# Bretoiak Arrasaten

Kemperko 80 bat bretoi Arrasaten izango dira asteburuan, uztailearen 9tik 11ra bitartean. Badira pare bat urte Britainiako Kemper-Arrasate elkartearekin harremanetan hasi zirela zenbait arrasatear, eta asteburuko bisita harreman horien haritik etorri da.

Kultura arloarekin lotura sendoa duten pertsonak dira, eta historialari bat, pare bat irakasle, dantzariak, argialetxe bateko zuzendaria... etorriko dira, besteak beste.



Asteburuan elkartasun jaia ospatuko da Arrasaten.

■ **KULTURA EKITALDIAK**

Hainbat ekitaldi ere antolatutuzte. Ostiralean, esate baterako, "Britainiako historia eta gaur egungo egoera" izenburuarekin hitzaldia emango du Robert Omnes historialariak. Hitzaldia Monterron kultura etxean izango da, arratsaldeko 19:00etan. Zapatu eguerdian, berriz, hainbat arrasatearrek ongi eto-

rria egingo diete britainiarrei Arrasateko udaletxean. Ongi etorriaren ondoren desfilea egingo dute Kemperko dantzariak eta Glazie Bagadeak herriko kaleetan. Horiakin batera Arrasateko dultzainero eta erraldoien konpartsa ere arituko da. Arratsaldeko 18:00etan beste hitzaldi bat emango da Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza zientzien fakultatean. Kasu honetan

hizlaria Jesus Garmendia Mondragon Unibertsitateko dekanoa izango da, eta "Euskal Herriko eta bereziki Arrasateko gaur egungo kultura egoera" gaiaren inguruan hitz egingo du. Gaueko 22:30ean, berriz, Britainiako eta Euskal Herriko dantza eta musika emanaldia izango da Monterron parkean, eta bertsolariak ere izango dira. Sarrera dohain izango da, gainera.

## Pintura erakusketa Harresin



114 ikasleren margolanak ikus daitezke.

Monterrongo marrazki eta pintura ikastaroan aritu diren ikasleek erakusketa egin dute Harresi aretoan. Erakusketan 114 ikasleren margolanak daude. Lanegunetan 18:00-20:00 izan-

go dira ikusgai margolanak. Larunbat eta jaiegunetan, berriz, 12:00-14:00 18:00-20:00.

Erakusketa uztailearen 11 arte izango da zabalik.

## "El milagro de P. Tinto"

Javier Fesser zine zuzendariaren *El milagro de P. Tinto* filma izango da ikusgai Monterronen, uztailearen 15ean, 21:30ean. Sarrera 450 pezeta kostako da.

Uztailearen 22an, berriz, *Muertos de risa* ikusi ahal izango da. Film hori Alex de la Iglesia zine zuzendariarena da.

Aire zabaleko zineari Joel Coenen *El gran Lebowski* filmak emango dio bukaera, uztailearen 28an.

Aire zabaleko zinea Arrasateko udaleko Kulturara Sailak antolatu du.



JESUS GARMENDIA (ARRASATE-KEMPER PROIEKTUKO KIDEA)

## “Zapalduon artean sortzen den elkartasunak bultzatzen gaitu”

Jesus Garmendiak Frantzian egin zituen ikasketak. Hori dela eta bere egin zituen hango hizkuntza eta kultura. Orain, ordea, Frantziak mantentzen duen diktadura linguistiko eta kulturalarekin kezkatuak dago, eta Kemperreko bretoiekin hartuemanetan dihardu, beste hainbat mondra-goetarrekin batera.

### — Nola sortu zen harremana?

— Sasoi batean euskal iheslari asko egon ziren Britainian, eta han sortu ziren lehenengo harremanak. Hemengo jendeak han jaso zuen babesa eskertzeko hona etortzera gonbidatu zituzten.

### — Zein da zuen helburua?


— Azken helburua elkar laguntzea da. Bretoien kultura eta hizkuntza, euskaldunena bezala, minoritarioa eta minorizatua da. Euskal hiztunekin konparatuz, erdira iristen dira bretoiak, 300.000 bat pertsonak hitz egiten baitu. 75 urtetik gorako artean %70k baino gehiagok daki bretoiera, baina 15 urteko gazteen artean %1 bakarrik da ulertzeko gai. Zapalduon artean sortzen den elkartasunak bultzatzen gaitu elkarri laguntzera eta berotasun hori sentitzera.

### — 1997an Kemper-Arrasate elkarte sortu zuten. Eta zuek?

— Behin-behineko estatutu batzuk finkatuta daude, eta erakundea laster sortuko da. Kutsu politiko oro ezabatu nahi zen, baina gero ez da erraza jendea erakarriko duen ardatz bat sortzea. Kultura ardatza sortu nahi izan dugu.

### — Zein da Britainiako egoera?

— Gerra aurretik milioi eta erdi batek hitz egiten zuen. Dena den, bi faktore daude hor: batetik, hango ikastolen sorrera. Momentu honetan 5.000 ikasle dauzkate, baina %12ko



hazkundera dute urtero. Bestetik, mugimendu politiko bat ere ari da sortzen. Bestalde, bretoiek progresibotasuna landu behar dute. Beraien egoera ipar Euskal Herrikoarekin parekatzen dut. Hiztun gutxi dira, baina gau-eskola eta ikastolen inguruan nukleo bat ari da trinkotzen.

### — Euskal Herriak eta Britainiak badute, beraz, antzekotasunik.

— Hego Euskal Herriko egoera hobea da. Han alderdi politiko abertzaleek ez dute ordezkariarik Parisen.

### — Nolako jendea etorriko da?

— Bi multzo bereiz daitezke. Gazteenak dantzari eta musikariak dira. Helduenek gehien bat kultura arloarekin dute lotura. Idazle bat, pare bat irakasle, argitaletxe bateko arduraduna, historialari bat... Kulturaren bidez Britainiaren identitate prozesuan konprometituta dagoen jendea da. Kultura harremana ardaztu nahi dugu.

### — Zer egingo duzue?

— Ostiralean hitzaldia emango dugu Monrerronen, “Britainiako historia eta gaur egungo egoera” izenburuarekin. Horrek markatzen du gure helburuetako bat; alegia, bretoiek gu informatzea beraien egoeraz, aldi berean guk ere gure egoera soziopolitiko eta kulturalaren berri emanez. Ildo beretik, dantza emankizunak ere izango dira kalean eta Monrerronen, eta bertsolariak ere bai. Euskal Herria ezagut dezaten nahi genuke, eta horretarako Arantzazura eta Gernikara ibilbideak antolatu ditugu. Jatorduak, berriz, elkarteetan egingo ditugu.

### — Frantzesez egin behar zaie?

— Bai. Haiek ez dakite euskararik, eta ezta guk bretoierarik ere. Beraz hizkuntza nagusi batera jo behar izaten dugu, frantzes esaterako.

### — Bretoiek nola ikusten dute Euskal Herria?

— Hona etortzen diren bretoiak militanteak dira, eta ikuspegi politikotik somatzen zaie nolabaiteko miresmena, hemen gauzak bai politika eta baita kultura arloan ere egin egiten direla ikusten dutelako. Erreferentziatzat hartzen gaituzte. Gudan nolabaiteko berotasun bat ere somatzen dute, eta sintonia hori beraiek hemengo iheslarietara agertu zuten harrera onak eragindakoa da neurri handi batean. Oso erraz sintonizatzen dugu elkarrekin egoera soziopolitiko, kultural eta linguistikoak oso antzerakoak direlako, salbuespenak salbuespen.

### — Jendeak nola ikusten du zuen harremana?

— Guk ez diogu inori kalterik egiten, eta noizbehinka gure zilborretik kanpo begiratzen ere jakin behar da.

“Hiztun gutxi dira. Gau eskola eta ikastolekin nukleo bat ari da trinkotzen”

# Arantza Ipiña / Hamahiru urte misiolari

**34 urte ditu arrasatear honek, baina azken hamahiru urteak Dominikar Errepublikan bizi da. Hasieran misiolari seglar moduan joan bazen ere, bi urtera bokazioa piztu zitzaion eta badira sei urte moja dela Merzedarien Kongregazioan. Hala ere, oraindik ere han segitzen du, bere misiolari lanak betetzen.**

**— Zein lan betetzen duzu zehatz-mehatz?**

— Azken bi urte haue-  
tan inguru hartako eskola  
bateko irakasle naiz.

**— Zer nabarmendu-  
ko zenuke han ikasi duzu-  
netik?**

— Hara heldu nin-  
tzenean jendea onartzeko  
duten erraztasunak harritu  
ninduen batez ere; oso apa-  
lak dira, gainera, eta izu-  
garrizko elkartasuna era-  
kusten dute edonorekin eta  
edonoiz. Hango jendeak  
duen guztia ematen du, ino-  
lako trabarik barik.

**— Hara heltzean zein  
izan zen izan zenuen zail-  
tasunik handiena?**

— Egia esan, hango  
gosariak izan ziren... Bai,  
izan ere, hemengo ohitu-  
rekin alderatuz gero, han

sendo gosaltzen da, arrau-  
tzak eta antzekoak janez.  
Horregatik hasieran...  
Haurrei "usted" moduan  
tratatzea ere hasieran gogo-  
rra egin zitzaidan.

Dena dela, ez nuen ara-  
zo handirik izan, ez pen-  
tsa. Lehen urtean bero apur-  
bat eta listo.

**— Zer sentitzen duzu  
faltan hemendik?**


— Han oso gustura  
nabil eta ez dut gauza larre-  
girik faltan sentitzen. Hala  
ere, hori beti dago bizitzea  
tokatu zaizun lekua-  
n. Hegoaldean izanez  
gero, hura oso sikua da eta  
orduan bai, hemengo para-  
je ederraren mira sartzen  
zaizu. Dena dela, egia esan,  
niretzat Arrasate oportetan  
etortzeko da. Hiru urtetik  
behin bi hilabeterako etor-  
tzen naiz eta hori aski zait.

**— Hainbeste urte  
esperientzia berezi horre-  
tan bizi eta gero, baduzu  
zeresanik herritarrei?**

— Bai, batez ere jen-  
de gazteari. Esango nieke,  
inoiz aukerarik izango balu-  
te, misioetara joateko edo  
mota honetako zerbait egi-  
teko, behar handiak dituen  
jendeari laguntzeko, batez  
ere. Askok uste baino erra-  
zagoa da, gainera. Izan ere,

horrelako lekuetan nahikoa  
da norberak dakiena emat-  
tea edo irakastea. Ez da  
behar bestelako ezer. Izan  
ere, honelako lekuetan guk  
daukaguna, edozer gauza,  
aberasgarri da haientzat.

Honelakoetan edonoren eta  
edonolako laguntza esker-  
tzekoa izaten da eta, noski,  
oso-oso beharrezkoa.  
Laguntzera doan pertsonak  
ikasten duena ere izugarri  
aberasgarria izaten da.



*Sagardotegia*

**ITURRIETA**

**Txotx egin!**

Astelehenetik  
asteazkenera  
enkarguz

Ostegunetik  
igandera zabalik

Arraga auzoa  
Tel.: 945 44 55 85  
ARAMAIO

**Danona**  
KARROZERIAK

**Konponketak, txapa eta pintura**

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

# Daglas bideokluba, Irundik Arrasatera

Daglas bideokluba 1986ko uztaillaren 2an ireki zuten Jose Luis eta Mari Karmen Gartzia. Ordurako hiru bideoklub zeuden Arrasaten, baina eurek horrelako negozio bat irekitzeko gogoia zuten. "Zinea atsegin dugu eta nahiz eta zaila izango zela jakin, arriskatzearabaki genuen". Hamahiru urte hauetan 9.000 film baino gehiago bildu dituzte Daglas bideoklubean.

Daglas izena nondik datozen galdetu genienean bitxikeria hau kontatu ziguten: "Irunen itxi berria zegoen bideoklub bat zegoen eta hango film guztiak erosteaz gain, negoziotik aprobetxa zitezkeen guztiarekin gelditu ginen. Hori dela eta, Daglas izena zuen hormirudia ere erosi genuen eta izen horrekin ireki genuen guk ere Arrasateko bideokluba".

## BEZEROAK

Urte hauetan guztietan 7.330 bezero izatera heldu dira. "Gehienak bezero gazteak dira, baina baditugu 40 urteko gorakoak ere. Ohiko gazteak dira". Hori dela eta, maiztzean eta ekainean zehar alo-



Daglas bideoklubak hamahiru urte bete berri ditu.

kairuen beherakada nabaritu dute. "Azken bi hilabete hauetan jaitsi egin da filmen alokairua. Banatzaileek adierazi digutenez, leku guztietan jaitsi da". Hala eta guztiz ere, Daglas bideoklubean 180 bat film alokatzen dira egunero: 60 bat kanpoaldean daukaten makinaren bitartez. "Orain dela sei bat urte jarri genuen lehenengo aldiz makina automatikoa eta gaur egun lanean dugunak 800 filmeko biltegia

dauka. Hilabetero aldatzen ditugu. Astero erosten ditugu film berriak. Hilean 40-50 film berri gutxi gorabehera erosten ditugu.

## ALOKAIRUA

300 pta kostatzen da film bat alokatzea. Hurrengo egunean entregatu ezean, beste 300 pta ordaindu behar dira atzeratutako egun bakoitzeko. Makinako txartela, hasieran 5.000 pta.ko balioarekin erosten da

eta hortik ordaintzen dira filmak. Gero, 0 nahi beste dirurekin karga daiteke.

## BESTELAKO PRODUKTUAK

Daglas bideoklubean badute bestelako produkturik ere. Informatikako produktuak saltzen dituzte. Orain dela lau urte hasi ziren eta "informatikarekin zerikusia duten tresnak saltzen ditugu. Saldu eta konpondu".



## Lan eskaintza

### Kazetaria

#### Baldintzak

- Euskara ondo menperatzea.
- Kazetaritza ezagutzea.
- Gida baimena eta autoa.

#### Langunearen beharrak

- Asteburuetan eta jaiegunetan kazetari lanak egitea Arrasate Pressen eta Arrasate Telebistan.

Curriculumak aurkezteko epea uztaillaren 14an bukatuko da. Curriculumak ARKOk Administrazio bulegoan jasoko dira.

Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE • Tel.: 943 71 23 90

## ARRASATE PRESSEko harpidetza berriztu nahi duzula?

Arrasatetik kanpo dauden lagun edo senitartekoei harpidetza oparitu nahi diezula?  
ORAINTXE DUZU GARAIA



Gure kontu korrantean 3.000 pta.ko diru sarrera egin dezakezu uztaillaren 16a baino lehen, kontu korrante zenbaki hauetako batean:

- KUTXA 001.026694.8 (Portaloiko bulegoa)
- EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kaleko bulegoa)

Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean bidali behar den.

ARRASATE PRESS atzerrian bizi den norbaiti bidali nahi badiozu, zatoz gure bulegoetara eta jakinaraziko dizugu.

Tel.: 943 71 25 11 • Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

- Etxebizitza salgai Zarugalden. Tel.: 630 980 857.

- Etxebizitza salgai, Anboto kalea 10-4. Tel.: 630 52 21 43.

- Apartamentuak eta txaletak salgai Torrevejan. 7.800.000 pta.tik 25.000.000 pta.ra. Tel.: 966 70 49 41.

### 3. Errentan emateko

- Torrevejan apartamentua alokagai. Bi logela, jangela-egongela, etab. Hondartzatik 100 m.ra. Tel.: 943 77 03 85.

- Bungalowa alokagai, hondartzatik oso gertu. Abuztua eta iraila. Oso handia. Tel.: 943 79 52 94. Mariano.

- Etxebizitza alokagai Donostian, Antigua auzoan, hondartzatik 200 m.ra, abuztuan eta irailan. Tel.: 943 79 82 05. Gauez, 21:00etatik aurrera.

- Apartamentua alokatzen dut uda honetan, Laredon. Tel.: 943 79 52 80.

- Gela bat jarri nahi dut alokairuan. Tel.: 943 79 68 00.

- Etxebizitza alokagai Donostian. Uztailean eta irailan. Kontxako hondartzatik oso gertu. Tel.: 943 21 08 21.

- Etxebizitza alokagai Donostiako Urbieta kalean. Datorren ikasturterako. Tel.: 943 21 08 21.

### 4. Errentan hartzeko

- Arrasaten etxebizitza alokatu nahi-ko genduke. Tel.: 656 41 60 93 eta 94 673 71 72. Arkaitz.

- Etxebizitza errentan hartuko genduke lau ikaslek. Ahal bada, Eskola Politeknikoaren inguruan. Tel.: 943 77 16 61. 104. logela, 21:00etatik 22:15era.

- Etxebizitza nahi dut alokatu. Uztailetik aurrera. Tel.: 945 24 08 65. Zuriñe.

- Lau ikaslek etxebizitza alokatuko genduke Arrasaten. Tel.: 943 39 46 33.

- Errentan hartzeko etxebizitza behar da Arrasaten, lau ikaslerentzat. Tel.: 94 442 17 87. Ander.

- Pertsona batek etxe bat hartu nahi-ko luke errentan. Tel.: 943 31 14 57.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

- Etxebizitza alokatuko nuke beste ikasle batzuekin osatzeko. Tel.: 943 69 24 03. Leire. Eguedietan deitu.

- Hiru pertsonarentzako etxebizitza alokatuko genduke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 77 09 70. Amaia. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera deitu.

- Lau ikaslek etxebizitza behar dugu alokatzeko. Tel.: 943 88 50 74. Nagore. Arratsaldean deitu.

- Etxebizitza errentan hartuko nuke San Andres aldean. Tel.: 606 86 71 97. Edurne.

- Bikote profesional batek etxebizitza bat beharko luke alokairuan Arrasaten. Tel.: 943 77 18 23.

### 5. Etxeak osatzeko

- Pertsona bat behar da Arrasaten etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 27 64.

- Etxebizitza osatzeko laguna behar da Aramaion. Tel.: 943 77 04 98. Arratsaldean. Irene.

- Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Altamira auzoan. Tel.: 943 77 13 20.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

- Garajea salgai Lankelen (Roneo) Tel.: 943 79 01 71. 19:00etatik 22:00etara.

### 9. Errentan emateko

- Garaje bikoitza alokagai, Roneon. Tel.: 943 79 13 56.

### 10. Errentan hartzeko

- Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

- Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m<sup>2</sup>ko eta bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24.

### 14. Errentan emateko

- Txabola alokatzen dugu Opakuako

mendietan, inguruan 5.000 m<sup>2</sup> dituen. Tel.: 945 30 10 27.

## LANA

### 17. Eskaintza

- Neska gertu umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

- Andra euskalduna umeak eta pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 943 79 07 73.

- Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 78 36. Jacqueline.

- Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. Deitu larunbat eta igandeetan. Tel.: 943 79 11 46.

- Emakumea gertu arratsaldeetan haurrak zaintzeko. Tel.: 943 79 13 66. Arratsaldean deitu.

### 18. Eskaerak

- Pertsona heldua zaintzeko norbait behar da. Tel.: 943 79 66 96. (19:00 - 22:00).

- Tabernarako zerbitzaria behar da. Tel.: 945 44 50 86.

- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tel.: 943 79 21 15. Aintzane.

- Umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko neska behar da. Beharrezkoa izango du autoa. Tel.: 943 71 50 92.

- Pertsona bat behar da taberna batean lan egiteko. Tel.: 943 79 61 64.

- Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Tel.: 943 77 07 28.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

- Lehen Hezkuntza eskolak emango nituzke uztailean, ingelesa barne. Tel.: 943 79 85 71.

- DBHko 3. maila arteko eskola partikularrak emateko prest, uztailean. Tel.: 943 79 04 84. Lorea.

- Enpresa zientzietan lizentziadunak eskolak emango lituzke udan, euskaraz edo erdaraz (goi maila eta erdi mailako ikasleei). Tel.: 943 79 86 06.

- Enpresa Zientzietan lizentziaduna den neska esperientziadunak 16 urtetik beherakoentzako eskolak ematen ditu. Tel.: 943 79 06 39.

- Lehenengo eta Bigarren Hezkun-

tzetarako eskola partikularrak ematen dira, euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 943 79 83 46.

• Matematikan lizentziadun espe-rientziadunak eskola partikularrak emango lituzke udan. Tel.: 943 77 02 62.

## 21. Eskaerak

• Abuztuan ingelesezko eskolak emateko pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 96 69. 22:00etatik aurrera.

• Unibertsitateko lehenengoko fisika, kimika eta biologiako eskolak jasoko nituzke. Presazkoa. Tel.: 629 26 39 45.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Vespino NLX ia berria salgai. Tel.: 943 79 60 81. Jose Mari.

• Opel Corsa salgai. 80.000 km. SS-V. Egoera onean. Tel.: 943 58 50 17.

• Wolswagen combi bat salgai, guztiz hornituta. Tel.: 943 71 49 15. 21:00etatik aurrera.

• Rover 216,SSY saltzen dut, 200.000 pta.tan. Tel.: 943 79 37 99. Mikel. (08:00 - 15:00).

• M-SS matrikula duen Ford Escort XR3 Injection autoa salgai. 350.000 pta.tan. (negoziagarria). Egoera onean. Tel.: 943 77 13 91. Gauzez.

• Fiat Regatta 70 SS-AB salgai 200.000 pta.tan. Negoziazagarria. Tel.: 943 79 83 72. Gauzez.

• Derby Senda L-6 50 cc, mistoa salgai. Egoera onean. 160.000 pta. Tel.: 943 79 05 95. 10:00 - 13:00.

• 1991 urteko Clio 1.6v salgai, 90.000 km. estra, 825.000 pta. Tel.: 629 30 28 17.

• Bi urteko Citroen Saxo 1-1i, SS-AY matrikuladuna salgai. Egoera onean. Laneko tel.: 943 76 11 20, eta etxekoa: 943 76 12 66. Xabi.

• Suzuki GSX-F/600 gorria salgai. 90. urtekoa da eta ongi zaindua dago. Tel.: 943 77 18 11. Ruben. 22:00etatik aurrera.

• Suzuki Lido 80cc SS-9754AK, 8.500 km. Egoera onean, ITV gaintitirik. 95.000 pta. Tel.: 943 79 94 21. Fernando, goizez.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Minolta X500 argazki kamera (50 mm), Minolta auto 280PX flasha, eta 135 mm. ko objektiboarekin salatzen dut. Egoera bikainean dago. Tel.: 943 79 06 15/946 58 31 92.

• Area Pro 2 markako gitarra elektriko salgai. Egoera onean eta gutxi erabilia. Estalkia oparitu egingo dut. Tel.: 943 79 73 30. Ekain. 21:00etan deitu.

• Lau laguntzako Adria 3,75 m. ko karabana salgai. Abantze eta guzti. Egoera onean. Tel.: 943 74 07 85.

• Errekadista negozioa salgai, furgoneta eta ohiko bezeroak barne. Prezio ona. Tel.: 943 76 09 12.

• Bi sofa salgai. Bata hiru pertsonarentzat da eta bestea pertsona batentzat. Fundak dituzte. Prezio onean. Tel.: 943 79 77 91.

### 27. Erosi

• Disko singelak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

### 30. Hartu

• Panpinak behar dira lehenbailehen arte lan bat egiteko. Egoera onean bueltatuko dira. Deitu astelehenetik ostegunera bitartean 670 30 02 69 telefonora. Maite.

### 31. Galdu

• Joan den astean emakumezko erloju bat galdu nuen erdialdean. Korrea marroia eta esfera zuria du. Aurkitu baduzu, dei egin 943 79 03 29 telefonora.

• Betaurreko graduatu batzuk galdu nituen San Juan egunean. Tel.: 943 79 09 18.

### 32. Aurkitu

• Betaurreko batzuk agertu dira Larra-gain kaleko garajejan. Tel.: 943 79 86 28.

## HARREMANAK

### 35. Kontaktuak

• Biolin jole eta zehar flauta jole bat behar dugu musika talde batean jotzeko. Tel.: 943 79 95 76. Esteban.

# Auzolandegiak Iparraldean

UZTAILAREN 18tik 30era...

## Opor alternatiboak nahi badituzu hauxe duzu aukera aparta!

SEASKAri lagundu eta Iparraldeko inguruak ezagutu, giro jator eta euskaldunean.

Ikastola konpontzeko bertako guraso, ikasle eta irakasleekin egingo da auzolana.

Arratsaldean Iparraldea ezagutzeko irteerak, kirol alternatiboak, jaialdiak, kultur bisitak, beti ere taldearen araberrako programa eginez.

**Asteburuan jai, noski!**

**Matrikula:** 23.000 pta

AEdko bazkideentzat: 19.500 pta

**Izena ematea:** uztailaren 13a baino lehen

AED elkartean

**Tel.:** 943 71 21 17 / 943 77 12 28

**TOKI MUGATUAK**

K a n b o k o X a l b a d o r I k a s t e g i a n

## Oraindik ez daukazula uztailerako planik?

- **Antolatzaileak:** AED elkarte eta Xalbador Ikastegia
- **Babesleak:** Arrasateko Udaleko Euskara eta Gazteria Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Jaurilaritzako Gazteria Saila



ARRASATEKO UDALA

Euskara Saila ■  
Gazteria Saila ■



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurilaritzako Kultura Saila

Gazteria Saila ■



**B**iteri plazan, 1942an ateratako argazkia da hau-xe, orain BBV dagoen tokian, hain zuzen ere. Atzean ikusten den eraikuntza, Biteri eskola dugu.

Neskatila biak, berriz, lehen-gusinak dira: Felisa Uribetxe-berria "Eperra" eta Milagros Iburguren, Satorretxe baserrikoa azken hau.

Milagrosen besoetan dagoen mutikotxo, berriz, Jose Antonio Muruamendiaren da, gozotegikoen senitartekoa.

Hamahiru urte besterik ez zituzten lehen-gusina biek, baina orduko garaia gogorak ziren eta nagusien seme-alabak zaintzen ibiltzen ziren, etxera diru apur bat eramateko. Orduan, hilean sei hogereko irabazten zituzten haurra zaindu eta etxeko lanak egitearren; lan garai honek irailetik ekaina arte irauten zuen, eta 30.000 pezetako soldata jasotzen zuten. Oporretan, berriz, baserrian lan egin beharra zegoen.

*Argazkia:*

*Milagros Iburguren*

*Berriemaileak:*

*Iker Letona eta Milagros Iburguren.*

X Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak

X Karta eta menu berezien zerbitzua

**DENBORALDIKO  
PLATERAK,  
GIRO ONENEAN**



**BASTER-ALDE**

**J A T E T X E A**

*Galariza auzoa • ARETXABALET A*

*Tel.: 943 79 24 58*



**ARTOUR TRAVEL**

bidaiak

- Galizia, 7 egun ..... 48.700 pta
- Praga, 8 egun ..... 72.200 pta
- Egipto, 8 egun ..... 110.900 pta
- Dominikar Errepublikan, 7 egun ..... 168.200 pta

Maixu Arano, 2  
Portaloian  
Tel.: 943 79 32 22  
20500 Arrasate

**Hainbat eskaintza  
ezin hobek  
Artour Travel-en!!!**

Umeen  
arroparik  
aproposena

Aprobetxatu  
orain  
%20ko  
beherapena

Elisabeth

ASTORE TERNUA



ARRASATE  
KIROLAK

UNITED COLORS  
OF BENETTON.

**BEHERAPENAK!**

Maalako  
errebala 13  
ARRASATE